

Berrigara

sindikatuak

35

orduko
analdiaren alde

Garai berrien hasiera?

... eta behin bakarrik biziko bagina?

 **CITROËN** *Xsara*
coupe
Azken belaunaldiko ametsa

ZATOK ETA PROBATU GURE INSTALAZIOETANI!

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara Tf. 76 47 49 / 76 47 73





GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42

Faxa: 76 54 25

San Juan auzoa z/g

20570 Bergara



**PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA**

- *Elkarte europarrera*
- +
- *Suizara,*
- *Noruegara,*
- *Poloniara eta*
- *Hungariara*

UGARTE

AROSZTEGIA

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefonoa eta faxa: 76 54 91

Aznarrek bi urte

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria



Jose Maria Aznarrek bi urte bete ditu gobernu buru eta bai presidentek eta baita bere alderdikideak ere, harro harro azaldu zaizkigu azken egun hauetan España primeran dihoala lau haizetara zabaltzen. Europan sartuko gara, bai, ate haunditik, eta ez dut esango sartu behar ez garenik, baina aurrera egite hori arlo guztietan nabaritzea ez litzateke gaizki egongo.

Burtsan dirua sartzen dutenek ehuneko 229a irabazi dutela iragarri diguten momentu berberean jakingo dugu gobernu espainiarrak ez duela asmorik legealdi honetan INEMeko transferentzia aurrera eramateko, alde aurretik alderantziz paktatuta zegoela pentsatzen bagenuen ere. Hori, transferentzia garrantzitsuenetako bat aipatzeagatik. Auskalo zer gertatuko den besteekin, Estatutua betetzeko borondate politikorik ez baita ikusten.

Bestalde, biolentziarekin amaitzeko ez nuke esango behar den lana egiten ari direla, Euskal Autonomi Elkartetik eskatzen zaiena ez behintzat. Horra hor adibide modura, Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeari eman dizkionten "erantzunak" presoen hurbilketarako plana aurkeztu zaienean.

Justiziari dagokionez, Luis Roldanek 32 urteko kartzela zigorra gainean izateak lasaitzen gaitu. Gauza bera sen-

"Luis Roldanek 32 urteko kartzela zigorra gainean izateak lasaitzen gaitu. Gauza bera sentitu dugu Mario Conde kartzelan ikusi dugunean"

titu dugu Mario Conde kartzelan ikusi dugunean baina, era berean, zenbait urtetan izan dugun kezka bera berpizten zaigu berriz ere: zer gertatuko da GAL kasuarekin?. Noiz hasiko da epaitzen behar den moduan?.

Sozialistekin jai izan genuen eta gertatzen ari dena ikusita, prozesu guztia bertan behera uzteko batzuek egin dako ahaleginak bere fruituak ematen ari direla pentsa genezake. Zerk bultzatu du Luis Maria Anson, adibidez, bapatean egin dituen adierazpenak egitera?.

Hau guztia albiste dugula, Euskal Autonomi Elkartean urrian egingo diren hauteskunderi begira boto asmoari buruzko inkesta argitaratu berri du Jaurilaritzak. Hauteskundeak gaur egingo balira, Partidu Popularra bigarren indar politikoa izatera pasatuko litzateke. Alderdi Sozialistak, berriz, ez luke iragarritako gainbehera izango. B

■ barruan



Iban Herzog

Saskibaloilaria

"Altuenak, behintzat, donostiarrak dira; gu, nahiko txikiak gara, baina teknikoagoak"

22. orrialdean.




Mikel Herzog

Kantaria

"Azken diskoak izan duen harrera ona izan daiteke Eurovisionera joateko arrazoia"

26. orrialdean.



Hipolito Poza

Suhiltzailea

"Zubillagan urtean 300 bat irteera izaten ditugu; gero eta gehiago"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1991. Martxoaren 3an Tavex taldeak Marruekosan lantegi berria ireki zuen. Settavex izeneko lantegi berria Settat hirian, Casablancatik 75 bat kilometrora, eraiki zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1861. Martxoaren 1ean Balentin Berriotxo hil zuten Tonkinen.

1976. Martxoaren 3an, poliziek bost langile hil zituzten Gasteizen eta beste hainbat zauritu.

MUNDUAN GERTATUA

1616 Martxoaren 5ean, Eleiza Katolikoak Copernikoren Astronomiari buruzko teoriak salatu zituen.

1983. Otsailaren 28an Compact Disc-a kaleratu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 27

14-18-29-32-35-37 (osag.22/er.7)

Astelehena 2

2-28-39-40-43-49 (osag.5/er.6)

Martitzena 3

10-20-26-29-42-43 (osag.36/er.3)

Eguaztena 4

2-6-9-38-41-46 (osag.35/er.8)

PRIMITIVA

Zapatua 28

2-6-14-15-17-29 (osag.20/er.6)

Domeka 1 Gordo

6-11-26-28-29-47 (osag.30/er.0)

ONCE

Eguakitza 27: 65.104 (K. seriea: 163)

Astelehena 2: 00.640

Martitzena 3: 98.789

Eguaztena 4: 04.718

BESTE BATZUK


Bedelkarreko harakinak: 0640

EHE, Bilintxen 10.000 PTAko

erosketa bonoa: 161

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Asteburuan hodeiak izango dira nagusi eta han hemenka euria ere egingo du. Zerua erabat estalia izango dugu, beraz, zapatu eta domekan. Tenperaturak behera egingo du eta haizeak mendebaldetik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: Martxoak 13



Ilbehera: Martxoak 21



Ilberri: Martxoak 28



Ilgora: Apirilak 3

Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:39



Gorde: 19:16

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 26	21	2	-
Eguakitza 27	20	3	-
Zapatua 28	13	4	-
Domeka 1	12	7	-
Astelehena 2	20	3	-
Martitzena 3	22	4	-
Eguaztena 4	22	9	2,6

farmaziak

Eguakitza 6 PUY.

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

Zapatua 7 GUALLAR.

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

Domeka 8 GUALLAR.

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

Astelehena 9 ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

Martitzena 10 MOZOS.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

Eguaztena 11 CAMACHO.

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

Eguena 12 PUY.

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

ogia

Domeka 8: Konde.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	76 24 40
Anbulantzia	55 49 62
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzailak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

Udala

Udaletxea	77 91 00
Udal Artxiboa	77 91 32
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prensa berriemaleak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57
Extra	79 82 68

Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuena Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritzia	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

hamaika ikusteko jaio ginen!

Kutsaduraz konturatzeko

Frantziako Clermont-Ferrand herrian airearen kutsadura-maila indikatzen duten posteak jarri ditu bertako udalak. Helburua, herri-tarrak kutsaduraz kontzientziatzea da.

Burmuin elebiduna

New Yorkeko Memorial Sloan Center-eko zientifikoek ustez, bigarren hizkuntza bat heldu aroan ikasi duten pertsonen eta umetatik elebidun diren pertsonen burmuinen artean bada ezberdintasunik: lehendabizikoek Broca areako (Broca area da hizketa erregulatzen duen burmuineko zona) gune desberdinak erabiltzen dituzte ama-hizkuntza eta ikasitako hizkuntza hitz egitean; umetatik elebidun direnek berriz, zona bera erabiltzen dute.

jaioetakoak

BERGARA
Jon Ander Perez Garcia
 Otsailak 20
Mikel Momoitio Azkarate
 Martxoak 1

hildakoak

BERGARA
Julia Jauregi Aranes
 Otsailak 26, 91 urte
Francisca Unzueta Arteaga
 Otsailak 28, 76 urte
Julian Garitano Elkoroiribe
 Martxoak 1, 72 urte
Juana Josefa Ugarte Beitia
 Martxoak 2, 88 urte
Salvador Alvarez Lagarejos
 Martxoak 2, 54 urte
Antonia Sagastigutxia Etxeberria
 Martxoak 4, 92 urte

ANTZUOLA
Felisa Etxeberria Bizkalatza
 Martxoak 1, 81 urte
Marina Peña Kortabarria
 Martxoak 4, 66 urte

zorion agurrak



Tomas Eguren
 Martxoaren 7an
 76 urte. Aitita,
 zorionak zure bost
 biloben partez!



Irati Alberdi
 Martxoaren 3an
 8 urte. Zorionak
 familiakoen partez!



Luis Mari Gantxegi
 Martxoaren 10ean
 54 urte. Zorionak!
 Boluko familia.



Angelita Arroyo
 Martxoaren 1ean
 88 urte. Zorionak
 seme-alaba eta
 biloben partez!



Elaiia Iñurrategi
 Otsailaren 25ean
 14 urte. Zorionak
 koadrilakoen eta
 gelakoen partez!



Asier Larrea
 Martxoaren 1ean
 2 urte. Zorionak
 guraso eta aitona-
 amonen partez!



Aitor Elizburu
 Martxoaren 8an
 3 urte. Zorionak
 Ander eta Mirenen
 partez!



Isabel Gurrutxaga
 Martxoaren 7an
 82 urte. Zorionak
 amama! M. Josefa,
 Nerea eta familia



Usue Zenitagoia
 Martxoaren 7an
 12 urte. Zorionak
 guraso eta anaiaren
 partez!



Vanesa Baz
 Martxoaren 2an
 18 urte. Zorionak
 familiakoen eta
 lagunaren partez!



Enrike Anton
 Martxoaren 3an
 51 urte. Zorionak
 familiakoen partez!



Erroxe Etxabarri
 Otsailaren 28an
 urtebete. Zorionak
 etxeko denek
 partez!



David Rodriguez Gonzalez
 Martxoaren 6an
 19 urte. Zorionak
 familiaren partez!



Ayala Sasieta
 Martxoaren 2an
 urtebete. Zorionak
 etxeko partez!



Maddi Alberdi
 Martxoaren 8an
 urtebete. Zorionak
 familiaren partez!



Ainhoa Alberdi
 Martxoaren 8an
 14 urte. Zorionak
 koadrilako partez!



Xabier Elortza
 Martxoaren 6an
 20 urte. Zorionak
 koadrilako lagunaren
 partez!



Edurne Arenaza
 Martxoaren 1ean
 30 urte. Zorionak
 Berrigara eta
 Jarduneko partez!

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Amama

1. Mauka, ondorengoaren gisako esapideetan (chollo):
 - *Ikusi zenbat keixa, ta danak geuretako. Au dok amama au!* edo *Au dok amama!* bati bat.

2. Eskura, erara, erraz (a placer, a huevo). Amama etorri edo euki, batez ere.

- *Baloia amama etorri jakuan Satrustegiri, baiña sekulako kalia ein juan.*

- *Amama najaukan makinan premixo aundixa, ta kakazarra.*



JOSU OKINA

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunaak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Melody sisters** taldearen "Con lo puesto" antzez-lana, bihar zapatua, 22:30, Arrasateko Amaian.

► **Eibarko Antzerki Jardunaldiak:** "Magnolias de acero" astelehenean; "Nerudaren postaria" martitzenean (euskaraz) eta eguaztenean; "Instintos ocultos" eguenean eta "Los titeres de cachiporra" eguakitzean. Denak Hezkuntza Esparruan, 20:30etan.

MUSIKA

► **Fly Shit** eta **Anestesia** bihar, zapatua, 21:30etan Arrasateko Gaztetxean.

► **Zazpi eskale** Arrasateko Amaia antzokian eguenean, 21:00etan. Sarrera doan.

► **Fermin Romero** kantautore kanariarra zapatuan 13:00etan Pol Polen. 23:00etan, **Malcolm Scarpa & Naco Goñi**.

IKASTAROAK

► **Sokorrismo** ikastaroak Deba Garaiko kirol zerbitzuen eskutik. Lehen sorospenei buruzko ikastaroa martxoaren 16an hasiko da eta uretako sokorristarena apirilaren 24an. Izen ematea martxoaren 8a baino lehen. Argibideak 77 91 67.

ANTZERKIA

La dama del alba

Zabalotegin

Noiz: zapatuan, 22:30, eta domekan, 19:00.
Sarrera: 500 PTA (300 Gazte Txartelarekin).

Virago taldeak "La dama del alba" antzezlanaren beste bi emanaldi eskeiniko ditu astebukaera honetan Zabalotegiko aretoan. Leire Madariagak zuzentzen duen taldeak joan zen abenduaren 19an antzeztu zuen azkenengo aldiz Bergaran Alejandro Casona antzerkigileak 1944an idatzitako obra hau. Viragok bi urte inguru daramatza bere hirugarren obra honekin; azkenaldian taldea haunditzen joan da piskanaka-piskanaka eta astebukaerako bi emanaldietan 16 aktore izango dira taula gainean. Besteak beste, Pedro Mujika (Aitonaren paperean), Marily Romero (Telva), Guruzne Elkoro (Ama), Oihan Vega (Andres) edota Iraitz Agirre (Dorina) dira laneko protagonistetako batzuk.

Alejandro Casonak (1903-1965) idatzitako lanen ezaugarrietako bat errealitate

eta fantasiaren arteko nahasketa litzateke. Viragok aurkezten digun honetan, obrako gertaerak familia baten barruan gertatzen dira eta misterioa da nagusi. Familia horren etxean alaitasunak ez du lekurik baina hainbeste eragin dien egoera gaindituz joango dira protagonistak apurka-apurka eta azkenerako lasaitasuna eta alaitasuna aurkituko dituzte. Funtzioak bi zati ezberdin ditu. Lehenbizikoa neguan girotuta dago, tristuraren sinbolismoa nagusitzen delarik. Bigarren zatian, misterioa argituz doan heinean, momentu goxoenak helduko dira. Udan, San Juan gauaren inguruan gertatuko da tramaren argitzea eta antzezlanaren bukaera. "La dama del alba" k bi ordu inguruko iraupena dauka eta 10 minutuko atsedenaldira izango da emanaldierendian. B



Argazkian, *Las criadas*, Viragoren aurreko laneko momentu bat.

► Gipuzkoako **aisialdiko hezitzaileei** zuzenduta, Donostiako Urtxintxa Eskolak euskara suspertzailerik ikastaroa antolatuko du martxoaren 14tik aurrera. Prezioa 12.000 pezetakoa da. 42 79 27.

LEHIAKETAK

► Bergarako XIII. **Literatur lehiaketa.** Adinaren arabera bost talde berezituko dira eta lanak apirilaren 22rako entregatu

beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak: 77 91 66.

DEIAK

► **HBk** deitutako manifes-

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 beheka
☎ 76 23 48



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

tazioa gaur eguakitzatza
19:30etan Plazatik, Mahai
Nazionalekoen askatasuna-
ren alde.

► **Gipuzkoako XXIX.** Hiru
Txirloko **bola txapelketari**
hasiera emango zaio bihar
zapatua Zabaletan,
Angiozarren, 17:00etan.

► **Iñigo Martinez**
"Memín"i omenaldia bihar
zapatua Irukurtzetan.
Irteera 9:00etan Plazatik.

► **San Emeterio eta San
Zeledonio** Osintxun: bihar
zapatua partxis eta mus txapelketak 16:30etan
Euskalduna tabernan eta
Osintxuko elkartearen.
Gauetz, 21:00etan, bertso
afaria Sebastian Lizaso eta
Maialen Lujanbiorekin
Txuringon. Izen-ematea
(2.500 pezeta) Osintxuko
tabernetan.

► **Emakumeen eguna**
ospatzeko txokolatada aste-
lehenean 17:00etan
Antxonin. Ondoren soinu-
joleen saioa.

► **EAJren** ohizko Uri
Batzarra eguenean, hilak
12, 20:00etan Batzokiko
Areoan. Alderdikide guztiei
dei egiten zaie batzarrera
joateko.

► **Pol-Polen** eskutik, gaz-
teendako irteera Andartora
martxoaren 15ean.

► **Formigalera** eski irtee-
ra martxoaren 19tik 22ra.

Alpeetara irteera apirilaren
10etik 17ra. Argibideak eta
izen-ematea Pol-Poleko
bulegoan (76 48 51).

► **Gipuzkoako Urtxintxa
Eskolak** udarako programa
ezberdinetarako hezitzaile-
en hautaketa prozesua ireki
berria du. Interesatuek
euren kurrikulumak bidali
ditzakete martxoaren 16a
baino lehen helbide hone-
tara. Euskal Herria kalea 7,
behea. 20003 Donostia.
Argibideak: 42 79 27.

► **Gure Ametsa** elkarteak
San Antonioko argazkiak
bilduko ditu astelehenera
arte, martxoaren 27an era-
kusketa zabaltzeko.

KINTADAK

► **1974an** jaiotako baz-
karia martxoaren 14an.
Izena emateko Euskadiko
Kutxan irekitako kontuan
2.500 pezeta ingresatu
beharko dira astelehena
baino lehen.

► **1958tik 62ra** bitartean
Angiozarren jaiotako afa-
ria martxoaren 28an. Izen-
ematea: 78 22 80 / 76 54 81.

► **1956ko** Gipuzkoako
kintoen bazkaria apirilaren
5ean Zarautzen. Izen-ema-
tea: 76 11 73.

► **1964an** jaiotako baz-
karia apirilaren 25ean.
Argibideak Plazako kiosko-
an (Luke).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Abre los ojos

Eguakitzatza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Sagu txiki, sagu maite

Domeka: 11:30.

Persiguiendo a Amy

Eguena, zine kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Las brigadas del espacio

Eguakitzatza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Grandes esperanzas

Eguakitzatza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15

EIBAR. Rialto

Mejor... imposible

Eguakitzatza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ÓNATI. Santana

Titanic

Eguakitzatza: 22:30.
Zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 18:30, 22:30.
Astelehena: 18:30, 22:00.

Sunchauser

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Jerry Maguire

Eguakitzatza: 22:00.

Fluke

Domeka: 16:30.

ELORRIO. Arriola

Alien resurreccion

Zapatua: 22:30.

Astelehena: 20:00.

Guerreros de la virtud

Domeka: 20:00.

ABRE LOS OJOS

Zuzendaria: Alejandro

Amenabar.

Aktoreak: Eduardo Noriega,
Penelope Cruz, Fele Martinez.
Tesis filmearren arrakastaren
ondoren, Alejandro
Amenabar zuzendariaren
bigarren lana. Cesar gazteari
(Eduardo Noriega) ondo
doakio bizitza; lan ona
dauka, dirua sobran eta nes-
ken artean arrakasta. Baina
kotxe istripu larria izan
ondoren amesgaiztoa hasi-
ko da...

SAGU TXIKI, SAGU MAITE

Zuzendaria: Lennart

Gustafsson.

Umorea da nagusi marrazki
bizidunetako filme honetan.
Lennart Gustafsson suedia-
rraren eskutik, sagutxoan
munduan murgilduko gara.
Satsu eta Saguskaren gora-
beheren eskutik maitasuna
eta heldutasuna aztertzen
dituen filme honetan, kantu
bikainak ere tartekatzen
dira.

PERSIGUIENDO A AMY

Zuzendaria: Kevin Smith.

Aktoreak: Ben Affleck, Joey
Lauren Adams eta Jason Lee.
Holden McNeil (Ben
Affleck) eta Banky Edwards
(Jason Lee) komikigileek
izugarriko arrakasta lortu
dute beren azken lanarekin.
Alyssa Jones (Joey Lauren
Adams) komikilaria ezagu-
tzean, Holden berarekin
maiteminduko da baina
Alyssak beste helburu
batzuk ditu...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.



JAZMIN

Ileapaindegia

IREKI BERRIA. GUSTATUKO ZAIZU.

Espoloia 4, behea. BERGARA. Telefonoa: 76 58 80.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra,
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...



Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

Industrialdea: eskariak egin dituzten enpresekin bildu da Udala

Victoriano Gallastegi alkatea eta Karmelo Azkoitia Bergarako Industrialdearen gerentea Labegaraietako Industrialdeako lursailak okupatzeko eskariak egin dituzten 40 bat enpresarekin bildu ziren joan zen astean.

Obren nondik norakoa, aurreikusita dauden epeak eta pabilioien adjudikazio baldintzak esplikatuz zituzten alkateak eta industrialdeako gerentek. Gogoratuko duzuen moduan, urte hasieratik obretan dihardute Labegaraietako Industrialdean. Lehen fasearen

urbanizazio lanek 186 milioi pezetako aurrekontua dute eta Construcciones Amena- barrek egingo ditu obrak.

Lehen fase honetan, 8.300 metro karratuko lursailean eraikiko dira pabilioiak eta lehenengo pabilioia azarorako prest egotea da asmoa. Halere, 20.000 metro karratu betetzeko lan eskaera jaso dira eta lehen fasea bukatu bezain laster, lursail berriak egokitzeko asmoa dauka Udalak. Gainera, orain urbanizatzen ari diren lursailen parean, errepidearen beste aldean, bulegoetarako eta zerbitzueta- rako beste 3.000 metro karratu inguru egokitzeko as-

moa dago. Udala lursailen jabeekin negoziatzen ari da eta lehenbailehen irtenbide bat aurkitzeko itxaropena dauka. Honela alde batean industria pabilioiak kokatu- ko lirateke eta kaminoaren beste aldean, zerbitzueta- koak.

Aurreadjudikazioa maiatzean

Bergarako Industrialdea sozietateak orain arte jaso diren eskaerei erantzun beharko die lehenbizi. Maia- tzean pabilioien behin behi- neko adjudikazioa egingo da eta hainbat baldintza hartuko dira kontutan pabi-

lioia adjudikatzerakoan: sortuko diren lanpostu berriak, enpresa berria den ala ez, teknologia maila, esportatzeko gaitasuna, inbertsio gaitasuna edota biabilitate ekonomikoa.

Eraikitako pabilioien prezioak, metro karratuko 55.000 eta 60.000 pezeta artean izango dira. Argi, gas, telefono eta uraren oinarri- ko instalazioak eginda emango zaie jabeei, baina pabilioi barruko instalazio guztia norberak egin behar- ko du.

Industrialdeak bultzatu

Bestalde, herrian indu- stria bultzatzeaz arduratuko den Sozietate Anonimoaren estatutuak prest ditu Uda- lak. Asmoa Labegaraietako industrialdeaz gain, San Blas eta San Juangoak ere bultzatzea da. Labegaraieta- ko Zerrajerako antzinako orubeetan hiru urte barru industria poligono osoa ga- ratuta izateko itxaropena dauka gobernu taldeak. B



Martxa onetik doaz Labegaraietako Industrialdeako lehen fasearen obrak. Udazkenerako lehen pabilioia eraikita egongo da.

Eskolei ematen zaizkien laguntzei buruzko iritzia eman du HBk

D eredia primatu beharko litzatekeela esan du

Bergarako HBko zinegotzi taldeak, herriko ikastetxeei Udalak ematen dizkien dirulaguntzei buruz duen iritzia azaltzeko prentsaurrekoa eman zuen eguastenean.

Bergarako Udaleko aurrekontuetatik aspalditik dago ikastetxe konkretu batzuentzako dirulaguntza partida bat. Hasieran laguntza hori Aranzadi ikastolak jasotzen zuen euskararen alde egiten zuen lanagatik. Azken urteetan, ordea, hezkuntzako dirulaguntza partida herriko ikastetxe guztien artean banatu du Udalak.

Irizpide batzuk kontutan hartuz egin da banaketa eta azken hilabeteetan irizpide horien inguruan eztabaidak izan dira Hezkuntza batzordearen eta ikastetxeko ordezkarien artean. Hainbat bilera egin ostean, Gobernu batzordeak, EAJ eta PSE-EE-ren aldeko botuekin, dirulaguntzak ikastetxeetako ikasle kopuruaren arabera banatzea erabaki zuen.

Herri Batasunak dirulaguntzak ikastetxe guztien



Ikasle kopuruaren arabera banatuko ditu Udalak dirulaguntzak. ARTXIBOA

arte, baina D eredian matrikulatuta dauden ikasle kopurua kontutan hartuz banatzea proposatzen du. Halere, salbuespena egiten du San Martin ikastetxearekin, hemen D eta B ereduetan matrikulatuta daudenak kontutan hartzea proposatzen baitu. "Betidanik D ereduaren aldeko apostua egin dugu eta publiko-pribatu zatiketa horrekin apur-

tu nahi dugu. Halere, kontutan izan behar da San Martin ikastetxean gaur egun matrikulazio guztiak D eredian egiten direla eta D ereduaren alde egiten ari diren lana baloratu behar dela uste dugu; bestalde, bere garaian D eredia guztiz ezartzeko aukerarik eduki ez izana ere baloratu nahi dugu" esan zuten HBko ordezkariak.

Kontu honetan EAJ eta EAK izan duten jarrera kritikatu zuten HBko zinegotziek: "EAJk inongo azalpenik eman barik hasierako jarrera aldatu egin du eta inoiz ez du eduki posizio garbi bat; EAK, bestalde, hasieran proposatutako guztiz kontrako irizpideak onartu arren, ez du ezer egin, gobernu taldean egon arren".

Bestalde, eskolen mantentimendu gastuei aurre egiteko Udalak Aranzadi ikastolari eta Mariaren Lagundiari dirulaguntzarik ez emateko hartutako erabakiaren aurrean, HBk duen iritzia azaldu zuten. Euskal Eskola Publikoaren aldeko apostua egiten zutela eta Bergarako kasuan prozesu horretan San Martin, Ipintza, Miguel Altuna, Angiozarko eskola eta baita Aranzadi ikastola ere kokatzen dituztela adierazi zuten HBko zinegotziek. Mariaren Lagundia, nahiz eta zentru kontzertatua izan, multzo horretan sartzen ez dutela adierazi zuten, "bere izaerarengatik, beti izan duelako bokazio pribatua". B

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**
EUXEBIO II
Irala z/g ☎ 76 07 92

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 76 13 35

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



Extebizitza ordaintzeko dirulaguntzak ere banatzen dira pobreziaren kontrako plan integralaren barruan. ARTXIBOA

108 familiak eskatu zituzten iaz pobreziaren aurkako laguntzak 34 milioi pezeta banatu ziren herritarren artean

Bergarako Udalak pobreziaren aurkako 108 eskaera tramitatu zituen iaz. Pobreziari aurre egiteko plan integralaren barruan, laguntzak jasotzeko udalean egiten diren eskariak Diputaziora bidaltzen dira eta honek ematen ditu dirulaguntzak, nahiz eta udaletik banatu. Iaz 34 milioi pezeta banatu ziren eta 108 eskaera onartu baziren ere, askoz ere gehiago izan ziren onuradunak, familia bakoitzak

eskaera bakarra aurkezten duelako.

Pobreziari aurre egiteko Plan integralean bi motatako dirulaguntzak zehazten dira eta familia batek bietarako laguntza eska dezake: alde batetik, diru sarrera txikiak dituztenentzat eta oinarriko beharrei aurre egiteko banatzen direnak eta, bestetik, etxebizitzak sortzen dituen gastuei aurre egiteko banatzen direnak. Lehenengoan 45 eskaera

tramitatu ziren iaz eta guztira 18 milioi banatu ziren. Extebizitzak sortzen dituen gastuei aurre egiteko, ostera, 63 eskaera jaso ziren eta 16 milioi pezeta inguru banatu ziren. 16 milioi horietatik %80a inguru, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko erabili ohi da. Bi motatako dirulaguntzak jasotzeko 39 eskaera izan ziren iaz.

Iaz beste urte batzuetan baino eskaera gutxiago jaso ziren. B

Ibilgailuen gaineko zergaren errolda ikusgai udaletxean

Udal Gobernu Batzordeak astelehenean aurtengo Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu zuen. Errolda 15 eguneko epean herritarrentzat ikusgai izango da Udaleko Kontuhartzailetzan. Epe horretan errolda horren aurka errekurtsioak eta alegazioak jarri ahal izango dira eta bat bera ere aurkeztuko ez balitz, behin betikoz onartuko da. B

Caritaseko erropero zerbitzua martxan Sierbetan

Caritasek behartsuei erropak emateko zerbitzua egokitu du Sierbetan. Zerbitzua erropen faltan daudenentzat ezezik, jantziak sobran dituztenentzat ere bada. Erropa hartu nahi dutenentzat ordutegia: hileko lehenengo martitzenetan, arratsaldeko 3retatik 5etara eta hirugarren martitzenetan, 5etatik 7:30etara. Erropa eramateko, ostera, bigarren martitzenetan 3etatik 5etara. B

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala 1

KONDE



Burdinate 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 76 20 34

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 76 53 09

Mariaren Lagundian egindako berrikuntza lanak bisitatu zituzten Udal ordezkariak

Mariaren Lagundia ikastetxean egiten ari diren obrak bisitatu zituzten martitzenean Udaleko eta Mauricio Arregi enpresako ordezkariak. Begoña Zubizarreta Mariaren Lagundiko zuzendari orokorarekin batera, Victoriano Gallastegi alkateak, Jose Antonio Etxeberria hirigintzako zinegotziak, Ramon Yeregi Udaleko arkitektuak, Jesus Laskurain aparejadoreak eta Javier Arregi konstruktoreak ikastetxean egindako berrikuntza lanak gertutik ezagutu zituzten.



Alkatea, hirigintzako zinegotzia eta udal arkitektua ikastetxeko ordezkariekin.

Berrikuntza lanak edifizio zaharrean egin dituzte, edifizio berria jadanik ez baitute erabiltzen. "Bi edifizioak mantentzea gastu haundia zen eta, bestalde, gaur egun garai batean baino monja gutxiago eta ikasle gutxiago dago" esan digu Manoli Urrak, ikasketa buruak. Ikastetxearen kanpoaldean orain dela sei bat urte egin zituzten lehendabizi-

ko lanak, hain zuzen ere jolastokian eta gimnasio nagusian, eta aldagela berriak egin zituzten. 96ko apirilean, berriz, barrualdea konpontzen hasi ziren. Etxearen hiru solairuak konpondu dituzte, hau da, zoruak, paretak eta sapaiak berritu eta hainbat tokitan gela berriak egokitu. Lehenengo

eta bigarren solairuak monjek erabili izan dituzte eta orain ikastolarako gelak egokitu dira. Esate baterako, beheko eliza eta koroanpsikomotrizitate gela eta eskolaurrekoentzako bideogela jarri dituzte; bestalde, lehen monjen jantokia zegoen tokian gimnasio txiki bat egokitu dute eta kanpo-

an ur depositoa zegoen tokian jolastoki estali bat egokitu dute. Lanak aurtengo udarako bukatzeko asmoa dute, baina irailean elizaren birgaitze lanak hasiko dira.

200 urte

Datorren urteko apirilean 200 urte betetzen dira Mariaren Lagundiko monjak Bergarara etorri zirela eta hori ospatzeko

hainbat ekitaldi antolatuko dituzte otsailaren 2tik abenduaren 21era arte. Datorren urterako ikastetxe osoa berriztuta egongo da. Ospakizunetarako logotipo lehia-keta antolatzeko asmoa daukate. Mariaren Lagundian 642 ikasle eta 44 irakasle (hiru monjak dira) daude gaur egun. B

UDABERRI-UDA
denboraldiaren hasiera



Eta Orain
52ra arte!
taila
haundiak

Gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak
Irizar 1, BERGARA. Tf. 76 20 03

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 76 55 74



☎ 76 20 61

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA
☎ 76 53 15

**ONENA
TINTATEGIA**

Barrenkalea 29 BERGARA

**MAHER
Biltegiak L.E.**

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Berrigara

314 zenbakia.
1998ko martxoaren 6a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil,
Mikel Elkoroberezar. **Maketazioa:**
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina
Romero. **Harpideta:** Gorka Elortza.
Testuen zuzenketa: Estepan
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio**
kontseilua: Miguel Angel
Elkoroberezar, Alex
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

AMODIOZKO ESKUTITZ BATI BURUZ

Azken garaiotan giza harremanen arloan zenbait aldaketa sortu dira. Izan ere, aurreko belaunaldientzat "tabu" ziren gaiak, egun erabat arrunt ikusten baitira eta, ondorioz, gazteen artean batik bat, modu librean adieraz daitezke.

Baina sentimenduak ez dira aldatzen. Euskarazko hiztegiak dioenez, amodioa maitearenganako onginahizko sentimendua da. Jende askok ezagutu du sentimendu berezi hau, zeren momentu horretan norberak baitaki, zalantzarik gabe, gertatzen zaionean zer gertatzen zaion.

Horretaz aparte, pertsonen nahiz animaliek sexu joeren sena dugu, zein, erakrpen fisiko natural baten eraginez, kontrako sexu pertsonekin betetzen baita normalean.

Hau guztia dela eta, alde batetik, zenbait modutan ase daitekeen behar biolo-

giko bat dago eta, bestetik, eskutitz horretan agertzen ez den aipatutako pertsona batenganako sentimendua. Ez ditzagun nahas.

Bestalde, pertsonaiak kontutan hartzen baditugu, apaiza eta moja baten arteko harreman sexualei buruz tratatzen da gutun honetan. Ez naizela inongo erlijioekin identifikatzen aurretik esanaz, idatzi horrek pertsona batzuk mindu ditzakeela garbi daukat eta, baita ere, lehiaketa publiko batean parte hartzeko inori minik egin gabe idatz daitekeela.


Gutxieneko errespeto hau edozein pertsonak merezi badu, nola ez udaletxearen bitartez lehiaketa honen sarietarako dirua ipintzen duenak.

Literatura mota hau aldikari kioskoetan aurki daiteke, normalean hartzaille konkretu batzuentzat idatzia, zenbait artikulutan irudiz lagunduz edota txiste gisa azalduz, baina beti helburu jakin batekin. Gure kasura itzuliz, amodiozko es-

kutitzen lehiaketan lehen saria irabazi duen idatzia, txisten pornografikoen arloan sailka daitekeela iruditzen zait. Irudipen bat baino ez da izango agian; bestela, ohore eskasa Bergarako herriarentzat.

Miguel Angel
15.338.795

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Automedikatzeke ohiturarik badaukazu?



Mariano Agirre

Ez daukat ohiturarik medikuarengana joateko. Hala ere zerbait fuertea edukiz gero, nahiago dut berarengana joatea neure burua automedikatzea baino.



M. Josefa Ormazabal

Ez zait tokatu medikuarengana asko joatea baina uste dut hobe izaten dela. Etxean aspirina eta kitto. Hortik aurrera, medikuak agintzen duena.



Antonio Ibarra

Ez daukat automedikatzeke ohiturarik. Zerbait arina baldin badaukat aspirina hartzen dut eta bestelakoetan medikuak agindutakoa bete.



Marili Romero

Automedikatu baino nahiago dut medikuarengana joan eta agindutako botikak hartu. Zerbait arina denean aspirina hartzen dut bestela.



Julian Aiastui

Ezer baldin badaukat medikuarengana joaten naiz beti, behar den guztietan joaten naiz. Gripearean kontrako txertoa ere hartu nuen aurten.



Agurne Arizmendi

Ez naiz gehiegi joaten medikura baina normalean hobe berarengana joatea. Zerbait arina denean, errezeta barik erosi daitezkeen medikamentuak hartzen ditut.

Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Josune Lizarralde deitu digu salaketa bat egiteko. Dakizuenez, Bergarako Udalak kontsumo kanpaina jarri berri du martxan. Antolatutako hainbat ekitaldiren artean, pegatina bat banatu du herriko etxeetan, nahi duenak buzoian jarri dezan. Pegatinan "Ez bota propagandarik" mezua idatzita dator eta, beraz, suposatzen da pegatina duten buzoietan kanpotik datorren publizitate orriak ez dituztela bota behar. Baina Josunek esan digunez, publizitate banatzaileek ez diote kasurik egiten pegatinari eta berdin-berdin sartzen dituzte publizitate orriak. Bere nahiak kontutan izan ditzatela eskatzen du Josunek.

■ ikuspuntua: **aitziber azkondo**

Titanicmania

Badirudi aurten Oscarrei buruz hitz egitea Titanic superprodukzioari buruz hitz egitea dela. Inoiz egin den pelikularik garestiena da, 14 izendapen ditu eta takilan 150.000 milioi batzera heldu daiteke; historiako takeroenen artean, hirugarren postuan dago, La Guerra de las Galaxias eta E.Tren atzetik.

Gaur egun, superprodukzio bat egiterakoan, dirua edozein tokitatik atera behar da eta, horretarako, edozein momentu da aprobetxagarria. EEBBetan, esaterako, itsasuntzia hondoratzen ari denean, azken momen-



tura arte jotzen ari diren musikoek eskaintako melodiekin egin den soinu banda eguneroko ogiaren moduan saltzen ari da. Interneten 26.000 helbide baino gehiago daude eta Leonardo DiCapriori mezuak bidaltzea ere posible ei da. Gizarajoa! Bestalde, erabilitako materialarekin, museo bat zabaldu du Fox produktorak Kalifornian eta udan, Lisboako erakusketan unibertsalean, itsasuntzitik berreskuratutako gauzak egongo dira ikusgai.

Zer gertatuko litzateke DiCaprioren ordeztu pelikulako protagonista Woody Allen, John Malkovich edo Depardieu bera izango balira? Eragina izango luke 25 urtetik beherakoengan?

Itsasuntziaren egiturak, dekorazioak eta antzekotasunak, istorioak baino garrantzia haundiagoa izan dute pelikulan. Istorioa tipikoagoa da baina muntaia on batekin aurkezten bada, arrakasta ia ziurra da.

Superprodukzioa izango da ikuslea erakartzeko modua? Horrela bada, pelikula inpendiente eta aurrekontu txikia dutenak arriskuan izango lirateke eta, pertsonalki, ez nuke batere gustokoa izango. B

■ asteko menua

Txangurroa labean

OSAGAIAK

(4 lagunentzat)

- Txangurroa (kilo bat)
- Olioia
- Kipula
- Berakatz atal bat
- Ardo zuria, basokada bat.
- Piperbeltz zuria.
- Tomatea, bi koilarakada
- Ogi birrina.
- Gatza.



INAZIO BELDARRAIN
Azpeitxi Jatetxeko sukaldaria

PRESTAKETA

- Jarri sutan itsasoko ura edo ura gatzarekin. Irakiten duenean sartu txangurroa 15-20 minutuz.
- Atera, hozten utzi eta hoztutakoan apartatu hanketako eta barrualdeko okela guztiak. Oskolean geratutako ura txinotik pasa.
- Zartagin batean jarri olioia kipula txikituarekin eta berakatz ale bat xehe-xehe eginga; kolore piskat hartzen duenean ardo zuria bota eta urritzen laga.
- Ondoren txinotik pasa den salda gehitu, piperbeltz zuri apur bat eta aurrez prestatutako tomatetik pare bat koilarakada.
- Hau guztia ondo nahastutakoan ogi birrina gaineratu. Ondoren txangurroaren okelak gehitu, eta guzti hau ondo gozatuta dagoenean oskolean sartu.
- Mahaira ateratzeko orduan gainean ogi birrin piskat jarri, labean sartu 3 bat minutuz eta perrexil apur batekin apaindu.

■ adituen esanetan

Lunbalgia

EDURNE JIMENEZ, *erizaina*

Lunbalgia edota bizkarreko arazoak edozein adinetan ager daitezke. Hala ere, kasu gehienak 30 urtetik aurrerakoan artean ematen dira, batez ere mugimendu gutxiko lanengatik, ariketa fisikoaren gutxitzeagatik eta gehiegizko pisuagatik ere bai. Nagusiki bizkarreko behe partean agertzen da mina. Pertsona guztiek jasan dezakete gerrialdeko arazoren bat, nahiz eta zenbaitek maiztasun gehiagoz sufritu. Lunbalgia ez da bakarrik pertsona sedentarioengan ematen. Zenbaitetan kirola praktikatzen dugu gure gorputzaren onerako den ala ez jakin gabe, eta horrek ondo-

rioak dakartza, bizkarhezurrari gehiegizko lana ematen diogulako.

Beraz, prebentzioa lortzeko, adin bakoitzari dagokion kirol mota egitea izaten da onena, norberaren ezaugarriak kontutan izanik. Era berean, kirola egin baino lehen eta ondoren, luzatze-ariketak egitea ezinbestekoa da; abdominalak eta lunbarrak indartzea komeni da. Lunbalgia arazo kronikoak dituztenek asesoratutako kirolak egitean hobekuntza nabaria izan dutela frogatuata dago. Asesoratutako ariketa fisikoak erregularitasunez egiten baditugu, gure bizkarraren onerako izango da. B

■ bergarako gordailutik

GIPUZKOAKO OSPITALA

Imanol Sorondo

Dergarako Seminarioan erakunde asko izan dira: jesuitak, dominikoak, Eliza, Errege Seminarioa, UNED, apaiztegia, ikastola, museoa, odol emaleen gela... gudetan ospitala.

Horrela, Karliten lehenengo gudaren garaietan, Gipuzkoako ospitala Bergaran, gure Seminarioan, ipini zen, eta bertara Donostia, Andoain eta Getariatik, Peñacerrada,



Nafarroa eta Bilbotik, Menako haranetik, Haroko ingurutik eta abar ekarri zituzten.

Ospitale honetan 694 hil ziren, ezkongabeak eta tetamenturik egin gabeak gehientsuenak; ahal zuten denek sakramentuak hartu ondoren Bergaran hilobiratuak izan ziren.

San Pedroko elizak badu Ospitale honetan "Hildakoen Liburua" eta esandako hil guztien izenak eta datak ipintzen dira 5 urtetan, 1835etik 1839ra.

Gehienak, 467, gaixotasunez hil ziren: sukar ustel, naparreri, guda-aren nekeak, tartean, eta gainerakoak, jasandako zauriengatik. Guda batean gehienek gaixotasunez hiltzea harrigarria badirudi ere, errazago uler daiteke esandako gaixotasun horiengatik eta izaten ziren kutsaduragatik eta, beste alde batetik, gudako mendi eta herrietan hilak bertan hilobiratuak izango zirela kontuan harturik.

Ezkontza bat ere egin zen Ospitalean, Erregeren etxeko morroi bat Oñatiko neska batekin. Azkenengo heriotza, berriz, bergarar batena izan zen, Agirrezabal Domingorena hain zuzen, Gasteiz inguruan zauritua. **B**

Aratuzteetako saltserak

Alde ederra dago emakume kuadrila hau horrela jantzita eta Karnabaletan mozorrotuta ikustearen artean. Joan dira bai aurtengo Aratuzteak eta argazkian agertzen den emakume taldeak **Bedelkar elkartearen saria** jaso zuen eguaztenean. Karnabal martitzenean Aita Santuak Kubara eginiko bidaiaren parodia bikaina egin zuten eta herriko dendariak 25.000 pezetako merien-datxo batekin saritu dituzte. Argazkian Sebastian Imaz Bedelkarreko ordezkariaren eskutik saria jasotzen ikus ditzakezue. Ziur laster hasiko direla datorren urteko bihurrikeria gertatzen... Bitartean, eutsi umoreari!!

Kili Kolo lehiaketan

Igor Legazpia 25 urteko bergararrak **ETB-1eko "Kili Kolo" saioan** hartu du parte. Telebista aurrean galdera mordo bat asmatzen zuela eta, amak programan parte hartzeko Igorren izena eman zuen telefonoz. Programako ordezkariaren deia jaso ondoren, Donostiako Miramongo estudioetan bi programa grabatu zituen Igorrek; lehendabizikoan garaipena lortu zuen eta bigarrean gutxigatik ez zuen berriz irabazi. Kontuak kontu, oso ondo pasa zuen Igorrek Maider Eguesek eta Angel Alkainek aurkezten duten lehiaketan eta horrez gain 125.000 pezeta eskuratu zituen. Oraindik ez du dirua eskuratu baina afari on batekin zelebratzeko asmoa daukala esan digu. On egin!!



Udal euskaltegien zozketa

Gipuzkoako udal euskaltegiak Herri Irratian antolatutako lehiaketan **Marian Porcel** arrasatearra suertatu da irabazlea. Partaideek udal euskaltegiek burututako kanpainaren leloa asmatu behar zuten. Jakingo duzue, "Ongi etorri euskarara, ongi etorri Udal Euskaltegira" dio aurtengo kanpainak. Guztira, 200 bat postale jaso ziren Herri Irratian eta Marian Porcelek bida-

litakoa saritu zen otsailaren 13ko zozketan. Maria-nek Milar Aiwa musika kataia eskuratu du. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Nerea Maiztegi** Arrasateko Udal Euskaltegiko zuzendaria, Marian Porcel irabazlea eta **Jesus Mari Elkorro** Milar-eko ordezkaria.



Zikloturisten irteera

Herriko zikloturistek aurtengo denboraldiari hasiera eman zioten domekan, **Dorletara** egin-dako ohizko irteerarekin. Mailot koloretsuak jantzita, 31 laguneko taldea bildu zen Plazan eta agintutako argazkia atera ondoren lehen kilometroak betetzeari ekin zioten, eritmo suabez. Denboraldia hasiera izanik, herriko txirridulariak ez dira oraingoz sasoirik onenean baina kilometroak bete ahala eta neguan irabazitako kilopak erretzearekin batera malda gogorrenei aurre egiteko indarra erakutsiko dute laister.



Hello friends!

This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

Connecting Basques and the world.

**Euskara-Ingelesa
Ingelesa-Euskara
Hiztegia:**

1.200 orri

**80.000 hitz
eta adiera**

**Eranskin
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak
eta bestelako
ikasmateriala**

**Ingalaterrako
nahiz EEBBetako
ingelesa
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + **

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 12 zenbakia. 1998ko martxoaren 6a.

Erreka desbideratzea onartu dute

Errekaren ubidea aldatuko dute plaza ez zabaltzeagatik

Pasa den asteko udalbatzarrean plaza azpitik pasatzen den erreka plaza ostetik desbideratzea onartu zuten. Zortzi urte zeramatzan udalak erreka inguruko erabakia hartu nahian eta azkenean, udalak bai baina plazako bizilagunek onartzen ez duten erabakia hartu dute.


Erabaki politikoa hartua dago; joan den astean onartu zuten EAJ, HB, PSE eta ZUTIKen aldeko botoekin; EA abstenitu egin zen. Ez da plaza zabaldu behar izango "arazoa" konpontzeko.

Udalak hartutako erabakiaren arabera, erreka ubidea desbideratuko da. Erreka plaza ostetik joango da eta zortzi metroko horma egingo dute, atzeko mendiari eusteko.

Valen Moñux aparejadoreak adierazi digunez, "erreka plaza erditik eta estali gabe defendatzen duen proiektua ez zen onartu, herriko plazaren itxura aldatzea suposatuko lukeelako. Ibaia bistan geldituz gero, plaza "berri" bat egin beharko genuke orain iturria dagoen lekuan gutxi gora behera; eta hori egiteko, plaza berrantolatze lanak berehala hasi beharko liriateke. Azkenean, ibaiaren ubidea desbideratzearen alde egin zen udalbatzarrean".

Plazako en kezak

Udalak hartu duen erabakiaren aurka agertu dira plazako bizilagunak. Beraien diotenez, "udalak erreka arazoa kendu nahi izan du gainera eta herritarren segurtasunaren eta ingurune-inpak-



Hemendik pasako litzateke erreka baina 8 metro beherago.

tuaren aurkako erabakia hartu du; guk proposatzen dugun bakarra da, erreka atzetik zabalik ez izatea, zeren egin diren estudio guztiek aurreikusten baitute hor atzeko mendiaren arriskua eta nahiz eta horma egin, ur haundiak egonez gero, hormak mendiari eutsiko lioke, baina zer gertatuko da mendi gainetik etor daitzkeen lur jausiekin? Denok dakigu zer gertatu den Leizarango autobian...".

Bakarrik erabakiaren aurrean

Plazako bizilagunen batzordearen ustez "politikoki ezin dugu ezer defendatu, erabaki politikoa hartua baitago; ez dakigu laguntza sozialik daukagun eta herriko ekologistak ez dakigu non dauden; ingurugiro-inpaktuari buruzko azterketaren zain gaude, proiektua egin arte ezin baita alegaziorik aurkeztu".

■ ■ ■
Guk proposatzen dugun bakarra da, erreka atzetik joatekotan, zabalik ez izatea
■ ■ ■

Patxiko Txerren II. literatur lehiaketa

Udalak 2. urtez Patxiko Txerren literatur lehiaketa antolatu du herrian jaio, bizi edo lan egiten duten guztientzat. Sariak, 120.000 PTA guztira, lau mailatan banatuak egongo dira, eta idazlanaren luzera ere adinaren arabera izango da. 1985-80 artean jaiotakoek gutxienez 2 eta gehienez 5 orriko lanak aurkez ditzakete. Bigarren mailakoak (1980-68an jaiotakoak), hirugarren mailakoak (1967an edo aurretik jaiotakoak) eta jubilatuen taldekoen lanak 3-10 orritakoak izan beharko dira.

Idazlanok udal liburutegian aurkeztu beharko dira apirilaren 16a baino lehen. Informazio gehiago behar izanez gero liburutegiko 76 60 65 telefonora deitu daiteke.

Gazinema

Martxoaren 8an, domekan, *Fluke* filma eskainiko dute 16:30etan. Datorren asteko eguakitzean, martxoak 13, *El mundo perdido* izango da ikusgai 22:00etan eta domekan berriz, martxoak 15, *Bio-Dome*, 16:30etan.

Ipuin kontalaria

Oihulari Klown taldeko partaide batek ipuin saioa eskainiko du martxoaren 14an, zapañuan, udal liburutegian 18:00etatik aurrera.

Bildots tripak berriz

800 bat kilo bildots tripa aurkitu zituen udaltzainak Deskarga gainean otsailaren 24an. Hirugarren aldia da bildots tripak agertu direla Antzuola eta Bergarako inguruetan. Orain dela hilabete pare bat, Aizpurtxo aldean agertu ziren, eta Udaltzainaren arabera "guztira 3.000 kilo baino gehiago bota dituzte". Momentuz ez dute tripen jatorriaren berrik.

Ibilaldi neurtua herrian



Umeek Arrolarekin Arnora egindako irteera.

Datorren asteko domekan, martxoak 15, Deba bailarako eskolarteko ibilaldi neurtua egingo da Antzuolan. Migel Angel Lizarralde, Arrolako lehendakariak, azaldu digunez, "ez da Antzuolan egiten den lehenengo aldia, orain dela hamar urte ere hemen izan zen eta aurrez berriz tokatu zaigu".

Eguraldiak laguntzen baldin badu, 1.600 ume baino gehiago bilduko dira goizeko 8:30etatik 9:00etara Zurrategi plazan. Uzarragara abiatuko dira 8-14 urte arteko neska-mutikoak. Uzarragatik Kostarratzura eta Trekutzen hamarretakoa egingo dute. Beherakoan Amilletara joango dira eta trenbidea hartuz Kaxeta-

raino iritsiko dira, handik berriz Zurrategi plazara heltzeko. Ibilbidea 12:00ak aldera amaitzea espero da.

Argazki lehiaketa

Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin batera antolatutako ibilbide neurtu horretan, neska-mutiek argazki lehiaketa batean hartuko dute parte. Nahi duenak ibilbidean zehar argazkiak aterako ditu eta apirilaren 15a baino lehen Arrolara bidali beharko ditu, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak onenak aukera ditzan. Ondoren Arrolakoek argazkiekin erakusketa bat egiteko asmoa dute.



A ze kuadrila!


Pasa den otsailaren 21ean bisita oso berezia izan genuen antzuolarrak. Gotzaia, "Marianico el corto" eta guardia zibil pare bat agertu ziren herrian. Zertara etorri ziren ez dakigu baina argazkia ateratzen behintzat laga ziguten.

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokitak eta tapizatuak



Z *Zabalo Iturgintza S.L.*

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 78 71 79, Tf. eta F. 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedituek bideratzen ditugu

Antzuola eta Internet eskutik hartuta

Egonaldiak familia euskaldunetan

Ordenadoreak eta Internet herritarren eskutan jarri nahi ditu udalak. Horretarako Telekomunikazioetako Egoitza Publikoa deitu duena zabaldu berri du. **Mikel Larrea alkateak azaldu digunez "guk ere ez dakigu zer nolako gune zabaldua den Internet baina kuriositatea somatu dugu jendearen artean eta harreara ona izango duela uste dugu".**

Angelo Caccioli italiarraren laguntzarekin egindako proiektua da eta badi-rudi, bere esanetan, ezaugarri hauek di-tuen inguruko zentro bakarra dela Antzuolan zabaldua dena. Sei ordenadore ipini dira ordenadore zentral bati konektaturik.

Herritarrentzako eskaintzak

Hiru funtzio nagusi izango ditu zen-troak. Lehenengoa formazioa izango da

eta edozein herritarrentzako, taldeetako partaideentzako, enpresetako eta udal langileentzako... ikastaroak antolatuko lirakeke. Bestetik, zerbitzu publiko beza-la, astean lau egunetan zabalik egongo da Internet erabili nahi duen guztia-entzat. Eta azkenik, "bidaia birtualak" egi-tea ere proposatzen da. Bidaioi eguaki-tzetan egingo lirakeke gai ezberdinei bu-ruz Interneten dagoen informazioan mur-giltzeko; martxo eta apirilera eskain-tzak Chiapas eta Kubara, euskaldunak munduan zehar, rocka eta mendizaleta-sunari buruzko bidaia izango dira bes-teak beste.

Ordutegia

Astean lau egunetan irekiko ditu ateak; martitzen eta egunetan 9:00eta-tik 13:00etara eta eguazten eta eguaki-tzetan 15:00etatik 19:00etara.

HABEK "Egonaldiak Familia Euskaldune-tan" programa jarri du martxan. Progra-ma honek euskara ikasten edo hobetu nahian dabilenari familia euskaldun ba-tean hilabete edo bi pasatzeko aukera eskaintzen dio. Udako hilabeteetan ikasleak hartzeko prest dauden familie-k 75.000 PTAtik 150.000 PTArainoko diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte. Uztaila, abuztua edo eta irailan euska-raz ikasten ari den norbait etxean hartu nahi duenak udaletxeko euskara zerbitzura jo dezake.

Antzerkia zinetokian

Oihulari Klown taldeak Zai beti zai antzezlan eskainiko du zapatuan, martxoak 7, zine aretoan. Klown emanaldia 22:30etan hasiko da.

Argazki erakusketa

Benito Cantero argazkilari bergararraren erakusketa izango da udaletxean martxoaren 13tik 15era; 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30etara.

GURE ARTIAN

Zeinek egiten ditu zuenean etxeko lanak?



Narcisa Sanchez

Etxean dena Eneuk egin be-har izaten dut; beste denak kan-poan ari dira lane-an eta zer egingo dute ba? Baina garbiketa haundie-tan alabek lagun-tzen didate.



Jesus Alberto Martinez

Lan gehixenak Lnere andriak egitten ditte eta zapatu eta dome-kean bixon artian. Gehixen gustatzen jatena jana gerta-zia da baina jene-ralian lan danak gorrotatzen dittut.



Jose Caceres

Normalean la-gundu egiten didate, nolabaite-ko banaketa egina daukagu baina su-kaldea eta plantxa nireak dira; gaine-ra nahiago dut lan horietan sartzen ez badira.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta

bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 76 64 23

GOROSTI Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

Sarriegik Antzuolan peña bat izango du

Jokalariarekin egon ondoren Realaren erantzunaren zain daude Sarriegiren peña egiteko. Oraindik ez dute herrian deialdirik egin peña osatzeko baina 50 bat lagun bilduko direla uste du Andoni Azkargortak, Antzuola baterako behar bada asko direla esaten duen arren.



Z

ela bururatu zitzaizuen?

Berotualdi batian izen zan. Jokalari euskaldun bat nahi giñuan eta jatorrena bera pentsau jakun. Beste batzuk okupauta zeren eta berak etzeukan peñarik, eta bera jatorra eta euskalduna danez, berari egittia pentsau giñuan.

Zer esan zizuen berak?

Ondo pentsau jakon, baiña harrittuta geratu zan; esaten zeban euskaldunekin inñor etzala akordatzen, beti kanpukuei animatzeko egitten diela peñak eta ideia asko gustau jakon.

Antzuolakukak giñala esan gontsarian be flipau egin zeban, itxuria herrixia ezagutzen zeban, txikittan krosera etorritta.

Nola jarri zineten berarekin harremanetan?

Guk ez giñuan zuzenian ezagutzen, bistaz bakarrik. Aranzabali esan gontsan berakin egotia nahi giñuala peña bat egitekotan giñalako.

Hurrengo baten entrenamendu baten ikusi giñuanian berana jun giñan eta Agusekin egon barik zeguanez geuk azaldu gontsan antzuolarron asmua.

Zer eskatzen da sozio izateko?

Ezer espezialik ez; Athletikekua izetia... Ez, ezta ezer espezialik biher sozio izeteko.

Zer bentaja dauka peñak partiduei begira?

Kanpoko partiduetara juteko diru-laguntzia emoten dau Realak, partidu bakoitzeko gastuak pagatzeko (autobusa...). Gaiñera, sarrerak lortzeko be erreza da, esate baterako Donostiako derbi baterako sarrerak etaratzeko.

Zein izendatuko duzue peñako lehendakari?

Oraindik ezta kigu zein ipiñiko dogun, baiña lehendakarigai batzuk badauzku.

Iker Sarriegiri ere peñari buruz zer pentsatzen duen galdetu diogu.

Flipauta gelditu nintzen... Antiguokoe egi tea ulertzen dut baina Antzuolatik etortzea peña bat egin nahi dutela esanez... Ideia gustatu zitzaidan baina ez nuen espero.

Antiguon ere peña bat egitekotan ziren eta antzuolarrei beraiekin egoteko esan nien; hala

ere, Antiguokoe ofiziala ez zutela egingo esan zidaten.

Zer esan zizuten antzuolarrek?

Behin parean harrapatu ninduten eta Agusek zerbait komentatu zidan galdetu zidaten; nik ezetz esan nien eta Agus bertan zegoela hura entzun eta orduan gogoratu zen "ah bai! barkatu! nik esan behar nizun baina...". Azkenean antzuolarrek esan behar izan zidaten peña bat egin nahi zutela. Agusi eskerrak eman nizkion abisua pasatzeagatik!



Iker Sarriegi Realeko jokalaria da

“Flipauta gelditu nintzen... Antzuolatik etortzea peña bat egin nahi dutela esanez...”

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apaintetak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 72 30 05
Billegia: 78 70 40

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

35 orduko lanaldia

Sindikatuak eta patronala eztabaidatan

ELA eta LAB sindikatuak hogeitamabost orduko lanaldia aldarrikatzeko hainbat ekintza iragarri dituzte datozen asteetarako. Abenduan enpleguari buruzko negoziazioak hasi zirenetik, Confebask patronala lan orduak murriztearen kontra azaldu da. Sindikatuak, berriz, neurri hori beharrezkotzat jotzen dute lanpostu berriak sortzeko.

ELA, LAB, CC.OOko Ezker Sindikala, ESK-CUIS, STEE-EILAS eta Lankideek prentsurrekoa eskeini zuten ostiralean Arrasaten aurrera eramango dituzten ekintzen berri emateko. Sindikatuak emandako datuen arabera, 1997an ekonomiak %4,2ko hazkundea izan zuen baina hazkunde horrek ez zuen espero zitekeen langabeziaren gutxitzea atzetik ekarri.

Xabier Garitano eta Xabier Larrañaga Bergarako ELAko ordezkarien hitzetan, "Barne Produktu Gordinak gora egin du azken urteotan, produktibitatea eta barne produktua parez pare aldatu dira baina ez, ordea, enplegua. Orain urte batzutako plantila berdinarekin, teknologia aprobetxatuz, gehiago produzitzen da eta horrek lan aldiaren eragina izan beharko luke, aspaldiko 20 urteetan ez baita lanaren murrizketarik egin. Gainera, Euskal Autonomi Elkarteko langabezia tasa %20,2koa da, Europakoaren bikoitza". Sindikatuen arabera, gazteen %40a langabezian dago (Europako tasarik altuena), bost pertsonatik batek ez du lanik eta guztira 191.000 langabetu dira Euskal Autonomi Elkartean. Langabetu horietatik 142.000 inguruk ez dute dirulaguntzarik jasotzen, 29.000 paroa kobratzen ari dira eta 19.000 lagunek subsidioa jasotzen dute. Hau ikusirik, Gogoa plataforma eratu berri da Gasteizko Parlamentuan soldata sozial minimo baten aldeko legea aldarrikatzeko.

Sindikatuak Arrasaten azaldu zuten, "behin eta berriz aipatzen den egoera ekonomikoaren momentu ezinhobeak, konpetitibitateak edota Maas-



Sindikatuaren ustez, ekonomiako datuak ez datoz bat langabeziaren errealitatearekin. Sindikatuak eta patronala enpleguari buruzko negoziazioetan dira. ARTXIBOA

trichtekiko konfluentziak ez dute zeri-kusirik langabeziaren errealitatearekin. Ekonomia oso ondo doala errepikatzen digute behin eta berriz. Nola ulertu orduan enplegua horren gaizki joatea? Azken batean familia guztiek sufitzen dute modu batean edo bestean langabeziaren arazoa. Eta, bestalde, lan baldintzak orokorrean nahiko txarrak dira; esplotazioa, soldata kaskarrak, gehiegizko ordutegia...”.

Lan banaketa hobetu


Egoera honen aurrean, ELA eta LAB sindikatuek hainbat proposamen egin nahi dituzte, lanaren banaketa hobea

Sindikatuak lanaren banaketa hobea aldarrikatzen dute. Lanaldia 35 ordu-ra jeistekotan, 70.000 lanpostu berri sortuko direla aurreikusten dute

lortzeko helburuarekin. Jose Luis Loidi “Rosli” LABeko ordezkariaren hitzetan, “kanpaina hau Lan Harremanaterako Kontseiluan aztertzen hasi zen eta beste sindikatuek ere bat egin dute gurekin. Arrasaten kooperatibismoak

duen indarrarekin, Lankide-ren parte hartzea ere ezinbestekoa zen. Langabeziaren aurrean ezin gaitzke eskuak gurutzatuta geratu eta ikusirik zailtasunak daudela gure asmoak aurrera ateratzeko presio soziala egingo dugu. Sentsibilizazio kanpainarekin mobilizazio soziala lortu nahi dugu, jendeari arazoa ikusarazi nahi diogu”. Denok lan egin ahal izateko, lanaldia murriztea derrigorrezkotzat jotzen dute. Sindikatuen arabera, 35 orduko lan astea eta Administrazioan 32 ordukoa izatea lortuko balitz, 70.000 lanpostu berri sortuko lirateke. 1880. urtearen inguruan Bilboko mehategi eta industrietan izandako grebaren ondorioz, langileek lan orduen murrizketa lortu zuten, beste eskakizun batzuen artean. Ordurarte lan jardunaldia 12 ordu ingurukoa izaten zen eta mende honen lehen erdialdean gaur egun ezagutzen den 8 orduko lan jardunaldia onartu zen. Orain, Frantzia, gobernuak berak asteko lanaldia 35 orduara gutxitzeko neurriak planteatu ditu eta 35 orduko lan aldian indarrean dago Alemaniako metale sektorean adibidez. Lan asteko orduak gutxitzearekin lanaren banaketa eta bizitza kalitatea ere hobetuko liratekeela uste dute sindikatuek.

Hogeitamabost orduko lanaldia aldarrikatzearekin batera, hobetu beharreko beste gauza batzuk antzematen dituzte sindikatuek, tartean aparteko orduen gehiegizko erabilera bazter-



Zer deritzozu lanaldia 35 ordura jeisteari?

JAVIER BERASATEGI

TTT taldeko presidentea

Lehentasuna konpetitibitateari eman behar zaio. Hori 20 ordurekin lortzen badugu, 80 ordukin lortzea baino askoz hobea izango da. Baina konpetitibitatea galduz gero, dena galduta dago eta beraz hori da inportanteena. 35 orduko lanaldia izateko bidean goaz baina gaur egun oraindik zaila ikusten dut. Enpresa sendo bat izaten ahalegindu behar gara, lan orduena ez da inportanteena.

EUGENIO ZALDUA

MAYCeko Zuzendari Soziala

Hogeitamabost orduko lan astearena slogan moduko bat da; esaten da lanpostuak sortzeko neurria izan daitekeela baina egingo den lana berdina izango da printzipioz. Beraz, enpresa paraleloki igo beharko litzateke enpresak konpetitibitatea ez galtzeko. Guk ez diogu itsu-itsu ezetza ematen formula horri baina oraindik ere sindikatuen slogan hori ondo xehatu beharra dago.

JUAN CARLOS LARRAÑAGA

LACOREko gerentea

Ez zait neurri ona iruditzen 35 orduko lan astea, uste dut enpresen konpetitibitatearen kalterako izan daitekeela. Oraindik ere langabeziaren analisi sakona egin beharra dagoela uste dut. Bailaran lanpostuak sortzen ari dira. Aurrejubilazioak gazte jendearekin ordezkatzeko eta “contrato a tiempo parcial” delakoa bultzatzea enplegua sortzeko neurri egokiagoak izan daitezke.

Langabezia Bergaran

Urtea	Langabetuak		25 urtetik behera	
		%		%
1988	1.017	14,85	-	-
1990	1.102	16,09	-	-
1991	727	10,81	255	35,07
1992	623	9,26	216	34,67
1993	671	9,98	226	33,68
1994	691	10,27	188	27,20
1995	569	8,46	171	30,05
1996	512	7,61	109	21,28
1997	475	7,06	103	21,68
1998	431	6,41	73	16,93

Iturria: Bergarako Udala



Sindikatuak apirilaren 23rako ordubeteko lanuztea eta manifestazioak konbokatu dituzte. Gizarte osoaren atxekimendua lortu nahi dute. ARTXIBOA

tzea, aurre jubilazioak eta kontratazio berriak bultzatzea edota lanaldiaren gogozko banaketa deritzona. Aparteko orduetako dagokienez, Deba Garaian oso hedatua dagoen praktika dela aipatu dute sindikatuak ordezkariek. Hauen esanetan, "oso zaila da bailara-ko enpresatan egiten diren aparteko orduak zenbatzea baina asko dira". Iaz Euskal Autonomi Elkartearen 80 milioi ordu extra egin ziren. Sindikatuak salatu dutenez, enpresa askotan egiten den lanaldia legez ezarrita dagoena baino handiagoa da. Egoera honen aurrean, enpresa askotan ohizkoak bihurtu diren aparteko orduak ahal den neurrian saihestea eta ezinezkoa den kasuetan aparteko ordu horiek atsedenerakin ordaintzea proposatzen dute. Sindikatuen ustez, egiten diren aparteko ordu horien bolumen bereko kontratazio berriak egin beharko lituzkete enpresek. Neurri honek, sindikatuen kalkuluen arabera, 15.000tik 20.000ra lanpostu berri ekarriko lituzke.

Patronalaren jarrera

Bestalde, 60 urtetiko gorakoentzat gogozko jubilazioa erraztu eta langile gazteen kontratazio berriak emateko neurriak hartzea aldarrikatzen dituzte sindikatuak. Neurri honekin datozen bost urteetan 15.000-18.000 gazte lan munduan hasiko liritekeela aurreikusten da.

Azkenik, sindikatuak ere lanaldiaren gogozko banaketa ere proposatu nahi dute. Puntu honetan beren lanal-

dia murriztu nahi duten langileak edota lanaldia aldi baterako laga nahi dutenak sartuko liriteke. Aldi baterako utzitako lanpostuak kontratazio berriekin beteko liriteke. Era berean, hiru pertsonetako batek, behin-behineko kontratuarekin lan egiten duela salatu dute sindikatuak. Hauen ustez, horrelako kontratu motak benetan aldi baterako lanak direneta mugatu behar dira eta gaur egun aldi baterako izaera duten 150.000 kontratu finkoak izatea eskatzen dute.

Sindikatuak pesimistak dira patronalak orain arte erakutsitako jarreraren aurrean. Patronalak lan jardunaldiaren murriztea errefusatzeko, aparteko orduen gutxitzeari trabak jartzen dizkio eta sustutuzio kontratazioaren aurrerapen gutxi lortu da oraingoz. Esan bezala, Confebask-en jarreraren aurrean, mobilizazioak iragarri dituzte sindikatuak. Horrela, martxoaren 28an manifestazioa egingo da Iruñean eta apirilaren 23rako ordubeteko paroa eta manifestazioak konbokatu dituzte. Sindikatuak, langileez gain, gizarte osoaren atxekimendua lortu nahi dute. Xabier

Confebask patronala lan jardunaldiaren murriztearen kontra azaldu da. Horren aurrean, sindikatuak mobilizazioak iragarri dituzte

Garitano Bergarako ELAko arduradunaren hitzetan, "kanpaina honekin indarra egin nahi dugu; gero ikusiko da akordioak lortzen den ala ez. Bihar igual ez, etzi ere ez... baina helduko da 35 orduko lan astea. Kanpaina ziurrenik motz geratuko da eta etxe asko daude ikutzeko oraindik; denetan sartu beharra dago. Ikusi Frantziaren langabe- tuen INEMeko bulegoak zela okupatu dituzten..., argi dago gauzak lortzeko indarra egin beharra dagoela". "Rossli"ren ustez, "somatzen dut sindikatuen eta Confebask-en arteko bileretan ordezko kontratoen puntuan akordioak lortu daitezkeela. Baina hori negoziotioaren puntu bat besterik ez da. Neurriak eraginkorrena asteko lan aldia 35 ordura jeistea izango litzateke, 70.000 lanpostu sortuko liritekeelako. Baina Confebask-ek ez du hori onartzeko asmorik. Baliteke aparteko orduen puntuan Confebask-ek murrizketa bat onartzea baina gure asmoa lana guztion artean banatzea da. Aurten ez bada lortzen datorren urterako greba orokorra deitzeko prest gaude".

Sindikatuak udaletan ere mozioak aurkeztuko dituzte datozen egunetan. Testuan asteko lanaldiaren murriztea, lanik ez dutenentzat eta diru-sarrera eskasak dituztenentzat oinarritzeko errenta bat (Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren parekoa) ezartzea, apirilaren 23ko deitutako manifestapenarekin bat egitea eta Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Parlamentuari helburu horietara iristeko beharrezkoa dena egiteko eskaera jasotzen da. B

Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Amilotx-Patatus Matxakategi
10:00: Matxakategi-Eri Patatus

ZAPATUAN KANPOAN

11:30: Ganbara Ari Ari-Igandekoak OH Zerezos
12:30: OH Zerezos-Mongatxurra Ganb. Ari Ari
16:00: Poliideportivo Taberna-Usoa Ufala
17:00: Shaktale-Ufala Usoa
18:00: Bildurbarek Opel/Lam-Etxagi Shaktale

DOMEKAN BARRUAN

09:00: Etengabe-La Peña DML MRW
10:00: Uve Bikoitza-MRW La Peña DML
11:00: Guadalest-Ezinleike Uve Bikoitza
16:00: Azpeitxi-Errotagain Amozkibar
17:00: Bayer-Amozkibar Errotagain
18:00: Agirrebeña Jatetxea-La Juve Bayer
19:00: Manitou-FAC Agirrebeña
20:00: Artusamak-SLO FAC

DOMEKAN KANPOAN

11:30: Ortz-Pagomendi A Ze Flaxa
12:30: Agiñaspi-A Ze Flaxa Etxagi Ortz
16:00: K. Piperrak-Bar Ganbara Indargorri
17:00: Indargorri-Autoberezi Bar Ganbara
18:00: Moskis-Patxaran Team Autoberezi

argi!

Arloteaketik Errotagainera

Orain arte Arloteak taldean jokatu duen Jose Luis Pascualek Errotagainen jokatuko du denboraldi amaierara arte. Play-offetan eta kopan ezin izango da fitxaketarik egin.

jokoz kanpo



Josu Olasolo
PATATUS

- G.** Zer moduz zabilzate?
E. Gaizki. Azkenak goaz eta. Jokalari asko lan arazoengatik ezin dira partiduetara joan eta batzuetan ez gara aurkezten eta beste batzuetan jokalaria gutxiago joaten gara.
G. Fitxaketak egitea ez duzue pentsatu?
E. Bai, datorren urterako batenbat fitxatu beharko dugu, bestela bota egingo gaituzte.
G. Joko aldetik zer moduz zabilzate?
E. Gaizki, sekula baino txarrago.
G. Laugarren mailan ze helbururekin?
E. Azkenak ez geratzeko esperantzaz.
G. Real UEFArako sailkatuko da?
E. Baietz uste dut.
G. Realeko jokalaririk onena?
E. Aranzabal.
G. Zer postutan jokatzen duzu?
E. Danetan eta inon ere ez.
G. Golik sartu duzu?
E. Hiru bat gol sartuko nituen.
G. Taldeko jokalaririk onena?
E. Aitor Ibabe.
G. Mundiala zeinek irabaziko du?
E. Brasilek.
G. Ligako jokalaririk onena?
E. Agian Rivaldo
G. Liga zeinek irabaziko du?
E. Barcelonak.

gora eta behera



Mongatxurra

Lehen mailan, Mongatxurra taldeak 6-5 irabazi zion A Ze Flaxa Etxagi liderrari eta liga bukatzeko 3 partidu falta direnean Mongatxurrakek bigarren postuan kokatu da 3 puntutara. Golegileen atalari dagokionez, Bayer taldeko Peli Iturrikastillo eta Karen Akkouhek launa gol sartu zizkioten Ufalari.



Moskis

Moskis taldekoak MRW eta Matxakategiren arteko partidua arbitratzera ez ziren joan eta, ondorioz, partidu hori ikusle batek arbitratu behar izan zuen horrek dakarren eragazponekin.

emaitzak

A Ze Flaxa Etxagi-Mongatxurra	5-6
Arloteak/Oilagorra-Jauja OH Zerezos	0-3
Pagomendi-Bar Canalejas	2-4
Etxagi-Ortz	6-3
Errotagain-Bildurbarek Opel/Lam	3-7
Agiñaspi-Azpeitxi Jatetxea	1-6
Bayer-Ufala	15-0
Amozkibar-Manitou	2-7
FAC-Guadalest	4-4
Ezinleike-Artusamak	0-3
SLO-Agirrebeña Jatetxea	5-4
La Juve-Shaktale	3-6
Bar Ganbara-Indargorri	2-3
Autoberezi-Uve Bikoitza	2-4
MRW-Matxakategi	3-0
Eri Sirimiri-Moskis	3-0
Jakina Patxaran Team-Aldoka Maldoka	4-3
Amilotx-Polideportivo Taberna	2-0
Usoa-Erdibiterra	4-2
Igandekoak-Etengabe	1-5
La Peña DML-Ganbara Ari Ari	2-5
Txipiron-Gazteak	7-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	45	19
2. Mongatxurra	42	19
3. Pagomendi	32	19
4. Bar Canalejas	32	18
5. Errotagain	31	18
6. Azpeitxi Jatetxea	26	19
7. Etxagi	24	19
8. Bildurbarek Opel/Lam	24	18
9. Jauja OH Zerezos	21	19
10. Ortz	15	19
11. Agiñaspi	13	18
12. Arloteak/Oilagorra	8	19

Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	24	8
2. Shaktale	19	8
3. Artusamak	14	8
4. FAC	12	8
5. Bayer	12	8
6. SLO	12	8
7. Guadalest	9	8
8. Ezinleike	9	8
9. Agirrebeña Jatetxea	7	8
10. La Juve	7	8
11. Amozkibar	5	8
12. Ufala	2	8

Hirugarren maila

	P	J
1. Moskis	15	8
2. Bar Ganbara	15	8
3. Autoberezi	15	7
4. Uve Bikoitza	12	7
5. MRW	12	7
6. Indargorri	12	7
7. Jakina Patxaran Team	10	7
8. Matxakategi	9	7
9. Eri Sirimiri	9	7
10. Komando Piperrak	3	7
11. Aldoka Maldoka	3	8

Laugarren maila

	P	J
1. Usoa	15	7
2. Txipiron	15	7
3. Ganbara Ari Ari	15	7
4. Etengabe	15	7
5. Polideportivo Taberna	12	7
6. Erdibiterra	12	6
7. Igandekoak	10	6
8. Amilotx	9	7
9. La Peña DML	7	7
10. Gazteak	3	8
11. Patatus	-3	7

ESKOLAKI KIROLAK

IKUSI ETA IKASI

BEROKETA LANAK: Prestakuntza psikologikoa:

Askotan, iharduera fisikoaren hasieran, kirolariaren kontzentrazioa eza istripu edo akzio okerren arrazoi bihurtzen da. Beste batzuetan, ordea, lehiaketa bateko lehen pausoak gehiegizko antsiaz aurre egiten ari dira. Beroketan zehar, arazo horiei erantzuteko moduko mentalizazio prozesua lortu beharko litzateke:

- Motibazio jokabideak indartzu.
- Ingurunetik isolatzeko ahalmena garatuz.
- Joko erabaki zuzenak errazago hartu ahal izateko, antsietate eta buruko tentsioak motelduz.
- Ekintza tekniko taktikoak aurrikusteko prozesu mentala sakonduz.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



TXINPARTAK

Mariaren Lagundiko infantil neskak Gipuzkoako txapelketara

Mariaren Lagundiko futboleko infantil mailako nesken taldeak Deba Garaiko txapelketa irabazi du. Igor Garciak entrenatutako taldeak partidu bakarra galdu du eta argi erakutsi du bailarako talderik onena dela. Orain Gipuzkoako infantil mailako talde onenen kontra neurtuko dituzte indarrak. Infantil mutilek joan zen astean bukatu zuten liga eta oraindik ez dakigu sailkapen orokorra.



San Martin kadeteak

San Martin eskolako kadete mailako saskibaloia taldea Ion Luke, Luis Acosta, Ion Ander Gomez, Daniel Encabo, Unai Trigo, Borja Gonzalez eta Jabi Llorentek osatzen dute. Orain arte futboleko eskubaloian, pilotan eta atletismoan aritu dira. Horietatik gehien gustatzen zaien kirola futbola da. Eskubaloia txapelketan bikain aritu dira eta finala jokatu dute. Hasi berri duten saskibaloia txapelketan, berriz, ez dakite zein postutan geratuko diren. Halere, aurreko postuetan sailkatzeko helburua dute.



Aranzadi 11 kadeteak

Aranzadi 11 kadete mailako taldea Gorka Uribe, Odei Lenisoro, Ibai Altuna, Ion Urteaga, Aitor Jaso, Odei Agirre, Mikel Pozo eta Mikel Plazaolak osatzen dute. Saskibaloia txapelketa oso ondo hasi dutela esan digute. Asteazken zehar bi aldiz entrenatzen dira eta batzuentzat kirolik gustokoenak eskubaloia eta saskibaloia diren bitartean, beste batzuentzat futbola da. Aurreko urteetan txapelketaren bat irabazi duten arren, aurten ez dute ezer irabazi. Saskibaloia txapelketa irabazteko asmoarekin dabilta eta taldeko onena Ibai Altuna omen da.

KARTELDEGIA

SASKIBALOA

Alebinak / Mutilak

Guztiak zapatuan, M Lagundian.

09:30: Aranzadi 12-Antzuola.

10:30: aranzadi 12-Aranzadi 9.

10:30: M LagundiaB-Aranzadi 7.

11:15: San Martin-Aranzadi 8.

12:00: M Lagundia A-Aranzadi 11.

12:00: San Martin-Aranzadi 10.

Alebinak / Neskak

09:30: Aranzadi 14-San Martin.

11:15: Aranzadi 13-San Martin.

Infantilak / Mutilak

Labegaraietan.

11:00: Aranzadi-Almen.

ARETO FUTBOLA

Alebinak

Guztiak domekan, M Altunan.

11:00: M Lagundia-Los Chicos de.

12:00: Aranzadi 201-Aranzadi 203.

IGERIKETA JOKOAK

Benjaminak

Guztiak zapatuan,
Agorrosingo igerilekuetan.

Jokoak:

Tapiz gainean lasterketa

Boleibola

Hondotik objektuak ateratzea

Tranpolinetik jauziak.

10:00: 4. mailako ikasleak.

11:00: 3. mailako ikasleak.

PILOTA

Bergara Hiriaren Finala

Guztiak domekan,
Udal Pilotalekuan, 11:00.

Aurrebenjaminak binaka

Ander Plazaola-Antxon Hernandez.
Jon Perez-Abraham Larrañaga.

Benjaminak binaka

Asier Peña-Jokin Balzategi.
Jon Larrañaga-Joseba Muguruza.

Infantilak binaka

Josu Agirrezabal-Asier Larrañaga.
Mikel Leturia-Ander Gabilondo.

Lehen mailako kadeteak

banaka

Joseba Orgaz
Abraham Larrañaga

Futbola



BKEko talde nagusiak 4-0 irabazi zion Lasarteri. Markagailuari begiratzuz partidu lasaia izan zela ematen du, baina lehen zatiko 30. minutuan BKEko Mikel Osoro kanporatua izan zen 1-0eko emaitzarekin. Halere, bergarrek argi erakutsi zuten zein den mailako liderra eta gol sorta ederra sartu zieten Lasarterei. Gainera bigarren postuan sailkatuta dagoen Zumaiakok berdindu egin zuen eta orain Nietoren mutilak 9 puntuko aldearekin daude lidergoan.

Gainontzeko taldeei dagokienez, 2. mailako kade-teek 0-7 irabazi zioten Koskasi eta igoera fasean lehenengo postuan daude. 2. mailako jubenilek 6-0 irabazi zioten Grosekori eta aurreko postuetan daude.

Eskubaloia



BKEko talde nagusiak 15-14 irabazi zion Urolari. Bergararrak partidua galtzen hasi ziren, baina defentsako lana hobetu ondoren markagailuan aurretik jarri ziren. Partidua bukatzeko 5 minutu falta zirenean BKEkoak 4 goleko abantaila zuten, baina azkeneko Urolakoak gol bakar batera geratu ziren.

Asteburu honetan Lijoren mutilek Elgoibar taldea izango dute bisitari. Partidua irabaztea derrigorrezkoa da jeitsieraren mamua uxatzeko.

Kadete mutilek igoera faseko lehenengo partidua galdu egin zuten Legazpiren kontra eta ondorioz lidergoan legazpiarrekin batera daude. Kadete neskek kopako lehenengo partidua irabazi egin zuten.

Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak 10 punturengatik galdu zuen igoera faseko bigarren partidua Arabako Campusen aurka. Conderen mutilek partidu flojo samarra jokatu zuten. Zapatuan azkenengo postuan dagoen Rioja taldea izango dute bisitari Labegarairetan eta ligaska bukatzeko oraindik 8 partidu geratzen diren arren, igotzeko aukerak mantentzeko ezinbestekoa izango da irabaztea.

Kadete mutilek galdu egin zuten eta lehenengo itzulia bukatzeko partidu bakarra geratzen denean ez dute partidurik irabazi. Asteburu honetan, Arrasate, egoera berbera bizi duenaren kontra derbia jokatu dute. Jubenil mutilak, berriz, liderrak dira.

IBAN HERZOG / Saskibaloilaria "Hirukoak sartzea gustatzen zait"

Iban Herzog antzuolarra BKEko jubenil mailako saskibaloia taldeko basea da. Igoera fasea ari dira jokatzen eta liderrak dira. Saskibaloian jokatzen egun guztia pasatuko luke eta talde bat aukeratzekotan Estudiantes izango litzateke.

G. Zeintzu dira zure ezaugarriak nagusienak?

E. Danetik egiten dut. Azkar samarra banaiz, baina jokoa antolatzea ere gustatzen zait. Balloia hartzen dudanean azkar jokatzen saiatzen naiz politagoa baita.

G. Zer moduz jaurtitzen duzu?

E. Nahiko ondo moldatzen naiz. Hirukoak sartzea gustatzen zait.

G. Partiduko zenbat puntu sartzen dituzu?

E. 10 bat puntu sartzen ditut. Taldean 4 edo 5 jokalariren artean banatzen dugu puntuak sartzeko ardura. Hori ona dela uste dut.

G. Espero zenuen hain ondo ibiltzea?

E. Ez. Igoera fasea jokatzeo sailkatzeko asmoa baneukan, baina orain lehenengo mailakoekin jokatzen ari gara eta gainera irabazi egiten diegu.

G. Diferentzia handia dago Donostiako eta probintziako taldeen artean?

E. Altuenak, behintzat, donostiarrak izaten dira. Gu nahiko txikiak gara, baina teknika aldetik hobetoak gara.

G. Sistema asko erabiltzen dituzue?

E. Ez. Erasoan entrenatzaileak jokatzen lagatzen digu. Defentsan sistemak erabiltzen ditugu eta txikiak izanik nahiko ondo ibiltzen gara.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Intxaurdi

Emakumezkoak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Bergara-Union Txiki

Ohorezko infantilak.
Zapatua. 11:00. Ipintza.

Bergara-Arrasate

Bigarren mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

Bergara-Mutriku

Bigarren mailako kadeteak.
Domeka. 11:00. Ipintza.

FUTBITOA

Begarako Lagunak-**Congelados Iceberg**

Eguakitza. 22:15. Labegaraieta.

ESKUBALOIA

Iraundi BKE-Elgoibar

Talde nagusia. Domeka. 12:15.

Bergara-Donibane

Kadete mutilak. Zapatua. 16:00.

Bergara-Leizaran

Jubenil mutilak. Zapatua. 17:15.

SASKIBALOIA

Bergara-Rioja

Senior mutilak.
Zapatua. 19:00. Labegaraieta.

Bergara-Arrasate

Kadete mutilak.
Zapatua. 12:15. M. Lagundia.

Bergara-Askatuak

Jubenil mutilak.
Zapatua. 19:00. M. Lagundia.

NESKEN IV. FUTBITO

TXAPELKETA

Domeka. M. Altuna institutua.

Zutaz Pentsatzen-Blue Star

Arb.: Antolatzaileak. 11:30.

Potzu T. Z.-Azkenak

Arb.: Antolatzaileak. 11:30.

Nifis-The Road Island

Arb.: Antolatzaileak. 12:30.

Gu Geu-Nahikari

Arb.: Antolatzaileak. 12:30.

PILOTA

Udal pilotalekua.

Foru Aldundiko Kopa

Eguakitza. 22:00.

Euskadiko Liga

Eguakitza. 22:00.

Domeka. 11:00.

Bergara Hiriaren Finalak

Domeka. 11:00.

Aurrebenjaminak, benjaminak, infantilak, kadeteak, seniorrak.

Lokatzako taldeen aurkezpena

Maila ezberdinetako lau talde arituko dira

Joan zen zapatuan Lokatza txirrindulari elkarteak aurtengo denboraldian izango dituen taldeen aurkezpena egin zuen Usondo parkean. Lau talde arituko dira Euskal Herriko errepideetan zehar garaipenen bi-

la. Denboraldia zapatuan hasiko dute kadeteek Azpeitia eta Beasainen. Jubenilek, berriz, domekan Eibarren eta, azkenik, infantilak apirilera arte ez dira lasterketan hasiko. Urteko helburua lasterketak irabaz-

tea den arren, erronka nagusia maiatzaren 29an Bergaran amaituko den Euskal Bizikletaren etaparen antolakuntza izango da.

Horretaz gain, maila ezberdinetan bederatzi lasterketa antolatuko dituzte eta

lehenengoa, datorren domekan 23 urtez azpikoen zat eta eliteko afizionatuen zat jokatu den Gorlarako igoeraren XXIV.a izango da. Apirilaren 18an, berriz, infantilentzako proba jokatu-ko da Matxiategin. B



Infantilak: Biciprecision Igartua.
Zuzendaria: Luis Miguel De Benito. Iñigo Larrañaga, Iñaki De Benito, Julen Aristegi, Iosu Martin, Kepa Barela eta Erik Cuevas.



Lehen Urteko Kadeteak: Caravanas Oñate.
Zuzendaria: Ion Ander Garitano.
Zigor Medina, Ion Arzelus eta Aitor Zenitagoia.




Bigarren urteko kadeteak: Sumofic.
Zuzendaria: Xabier Gabilondo.
Xabier Plazaola, Xabier Aranguren, Igoitz Gabilondo, Iñigo Arzelus.



Jubenilak: Sumofic. Zuzendariak: Iker Larrea/Mikel Lazpiur. Xabier Lete, Ander Agirre, Ion Mendizabal, Zigor Alberdi, Peru Sagarna, Mikel Aristegi eta Igor Fernandez.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 76 71 19



Ezozu auzoa 2/b, SORALUZE. Tf.: 75 10 01

EZOZI
Jatetxea

Etxean eginiko postreak eta arrainetan aukera aparta

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisua amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Baserri baten bila gabilta bertan bizitzeko. 907 48 07 52.

Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. Deitu 76 47 99 telefonora.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintun. 76 08 21.

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako errenta hartuko nuke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak errenta hartuko nuke. 76 56 66.

Klinika auxiliarrak batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. Deitu 76 64 47 telefonora.

Neska tituludunak administratibo lanak

(20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrekan. Deitu 76 24 57 telefonora.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. Deitu 76 27 61 telefonora.

Garajea salgai Martokan. 76 35 50.

Garajea salgai Ibargarain. Milioi bat. Deitu 76 21 61 telefonora.

Garajea salgai San Antonion. Deitu 76 15 37 telefonora.

Kotxe txiki baterako garajea salgai Ibargarai kalean. 650.000 pezeta. Deitu 76 57 93 telefonora.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekoan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. Deitu 76 33 76 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko gure. 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 76 70 63.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan.

150m². 76 1189.

Lokala salgai A. Fleming. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokan. 76 25 67.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron.

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jartzeko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale 30
ARRASATE
Tf. 79 05 80

egingo lituzke.
907 94 06 67.

Neska batek orduka lan
egingo luke. 939 47 2584.

Neska batek zaharrak
zaindu (gauzez ere bai)
eta garbiketa lanak
egingo lituzke (orduka).
76 58 10 (Maria Jesus).

Eskaerak

Antzuolan, bi gaiso
edadetu zaindu eta
etxeko lanak egiteko
pertsona behar da
(egun osoz). 76 61 85.

Etxeko lanetarako eta
umeak zaintzeko
emakumea behar da.
76 15 24.

Neska behar da umeak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 76 48 76.

Bi mutiko eta etxeko
lanak egiteko pertsona
bat behar da Antzuolan.
78 70 50 (18:00etatik
20:00etara).

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen
ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan.

78 71 32.

Ingeles klaseak ematen
ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika
klaseak ematen ditut
LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen
ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate,
fisika eta kimika klase-
ak ematen ditu. 76 70 40.

Fisika, informatika eta
mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak
ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki
klaseak ematen dira.
76 03 83.

Eskaerak

Frantses irakaslea
behar da. 76 06 87.

Enpresaritza zientzieta-
ko irakaslea behar da
matematika eta mate-
matika finantzieroa
irakasteko. 76 38 28.

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia rally motorra (49
c.c.) salgai. 76 62 24.

Audi 90 kotxea salgai.
1988koa. 76 35 09.

Ford Escort kotxea egoe-
ra onean salgai. ZA-F.
76 09 85.

Renault-21 GTS kotxea
salgai. Oso egoera
onean, lau urte t' erdi,
68.000 Km. 76 30 12.

7. ANIMALIAK

Saldu/Eman

Lau txakurkuma oparitzen
ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako
lau txakurkume salgai.
Abenduaren 19an jaiok-
ak. 76 51 38 (Joseba).

8. DENETARIK

Saldu

Logela berria salgai: bi
ohe, ikasketa mahaia,
liburu apalak, altzari
txikiak. 76 43 37.

Karro-denda salgai.
76 59 56 (gauze).

Denda baterako modu-
ko apala, mostradorea,
euskarria eta makina-
erregistradora prezio
onean salgai. Deitu
76 25 67 telefonora.

Gasteizera eguneroko
joan-etorria egiteko,
kotxea konpartitzeko
jendea behar da. Deitu
76 12 97 telefonora
(Antonia).

Gaszteentzako altzariak
saltzen ditut. 20.000
pezeta. Deitu 76 30 93
telefonora.

Altzariak prezio onean
salgai. Aukera ederra.
Deitu 76 30 93
telefonora.

Frigorifikoa salgai, 125
v. 50 litroko termo
elektrikoa. 76 47 71.

Belaunetarinoko ka-
tiuskak saltzen ditut.
76 53 16.


Soinua saltzen dut. Oso
egoera onean.
76 56 65.

Sukalde armairuak
kendu behar badituzu,
deitu. 76 04 57.

Talde italiar bateko txi-
rindulari ekipoa eta
Ronaldo izenarekin fut-
bol kamiseta saltzen di-
tut. 76 47 82.

Galdu

Katu siamesa (emea)
galdu da Bolun. Kollarra
dauka txilin batekin.
76 09 12.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

DISEINATZAILE GRAFIKO SORTZAILEA

- Bilboaldean kokatutako enpresa baterako.

Baldintzak

- Freehand, Photoshop eta Strata ren ezagutza.
- Bilboaldean edo inguruko eskualdeetan bizitzea.
- Erref. 6496/1

TEKNIKO KOMERTZIALA

- Arabako lautadako enpresa baterako.

Baldintzak

- Arabako lautada edo inguruko eskualdeetan bizi.
- Ikasketak: injinerutza teknikoa, LH-2 edo Mod. III.
- Norbere autoa eta B1 gida-baimena.
- Erref. 6337/2

BELA MONITOREA

- Arabako lautadako enpresa baterako.

Baldintzak

- Nabigatzeko gaitasun agiria.
- Erref. 6329/3

BIDE-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

- Durangaldeko enpresa baterako.

Baldintzak

- Bide-hezkuntzako irakaslea izatea
- Euskararen erdi-mailako ezagutza.
- Erref. 6283/2

JANTZI SALTZAILEA

- Bilboaldeko ALE (ETT) baterako.

Baldintzak

- Esperientzia izatea.
- Norbere autoa.
- Erref. 6543/3

LAN ESKAINTZA

Jardun Elkarteak Enpresa diplomatua

behar du, egun erdiz.

Bere ardura, Berrigara eta Jarduneko diru kontuak eraman eta
beste hainbat gestio lan egitea izango da.

Kurrikulumak aurkezteko azken eguna: martxoaren 23a.
Tokia: Kartzela Zaharra.



Mikel Herzog, Eurovision lehiaketarako bidean

"Amodio iragankorrari buruzko kanta da nirea"


Mikel Herzog bergararrak Eurovision kantu lehiaketaren aurtengo edizioan parte hartuko du. Datorren maiatzaren 9an, Birmingham-en, Herzogek "Que voy a hacer sin ti" kantua interpretatuko du Europa osorako.

G. Zela suertatu da Eurovisionen parte hartzeko aukera?

E. TVEko ordezkariak aukeratu naute. Egia esan, beste urte batzuetan parte hartzeko itxaropen gehiago izan dut eta beharrezkoa zitzaidan orduan, promoziorako etabar. Dena den, oso ilusionatuta nago. "La magia del amor" nire azken diskoak oso harrera ona izan zuen eta hori izan daiteke joateko arrazoa nagusia.

G. Zein asmorekin zoaz?

E. Absurdoa litzateke irabazteak ilusorik egiten ez didala esatea. Baina loteria bat izaten da parte hartzea eta irabaztea oraindik nekezago da. Aurten,



Mikel Herzog Bergaran. JOSE LUIS CALLEJA

nobedade modura, telebista ikusleek euren botoa emateko aukera izango dute eta ikusi behar. Ahal dudan guztia emango dut. Cadillac, La Decada, Nina, edota Serafin Zubiri nire lagunak egon-

da daude Eurovisionen eta euren esperientzia baliogarria izan daiteke niretzat ere.

G. Zelako kantua da "Que voy a hacer sin ti"?

E. "La magia del amor" kantua tankerakoa. Musika Alberto Estebanezek landu du eta letra, berriz, nirea da. Galdutako amodio iragankorrari buruzkoa da, nostalgia pittin batekin eta Eurovisionen aurkezten diren kantuenikutu komertziala dauka. Behin entzun eta geratzen zaizun horietakoa, Eurovisionera ezin dira abesti nekezak eraman.

G. Promozioa berehala hasiko da...

E. Bai, datorren astean bideo-kliparen grabaketarekin hasiko gara. Madril en egingo dugu eta Rafael Galan izango da errealizadorea. Espero dut hemendik Eurovision lehiaketa izan arte askotan emitituko dutela telebistaz. Nire laugarren diskoaren abesti nagusia izango da.

Titanic izan da azken urteetako pelikularik ikusiena Novedadesen

Munduan zehar errekorrak hausten diharduen James Cameronen *Titanic* pelikula 4.300 lagunek ikusi dute Novedades aretoan. Iralaren urte onenen garaitik ez da horrelakorik ezagutu Bergaran. *Titanic* pelikula hiru astetan zehar eman da Novedadesen eta azken hamaika urteetan ez

da halakorik ezagutu. Josean Azkarateaskasuak, Novedadeseko arduradunak, esan digunez, "zinera joateko ohiturarik ez daukan jendea, helduak batez ere, etorri da *Titanic* ikustera". Iaz Bergaran arrakastarik haundiena izan zuen pelikula *Full Monty* izan zen: 1.800 lagunek ikusi zuten. B

Maite Aurrekoetxea Musika Eskolako Orkestako zuzendari berria

Maite Aurrekoetxea bilbotarra da Musika Eskolako Orkestako zuzendari berria, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren ordeiz. Otsailaren hasieran hasi zen lanean eta une honetan 10 eta 14 urte arteko 40 bat ikasle ditu bere aginduetara. Maite Aurrekoetxeak Akordeoi titulua du eta Konposizioa


ikasten ari da Gasteizko Kontserbatorioan eta Orkestra Zuzendaritza Madril en. Bilboko eta Euskadiko orkestetan zuzendari lanetan ibili den Juan Menarekin harreman handia dauka.

Eskolako zuzendaritzaren asmoa, ekainaren 14an. Udaberriko kontzertuan, zuzenean debutatzea da. B



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65



ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
76 59 54 BERGARA

kronika

Arrasate Musikalek 25 urte

Aritzeta abesbatzak ospakizunetan parte hartu zuen

Arrasate Musikaleko zilarrezko ez-taiak ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Aritzeta abesbatzak emanaldia eskaini zuen domekan Arrasaten, bertako (Goikobalu), Eskoriatzako (Gorosarri) eta Oñatiko abesbatzekin batera.

Lehenbizi, lau taldeek elkarrekin eskaini beharreko kantak entsaiatu zituzten eta eguerdi aldera kalez kale ibili ziren. Aritzetari Arrasateko plazan eta Arbolapetan abestea tokatu zitzaion eta honako abesti hauek eskaini zituzten: "Jacinto Chiclana", "Alegeratzen", "Te quiero" eta "Erribera". Azken honetan, Agustin Badiola, Jabi Badiola eta Joxe Arrieta bakarlarri moduan aritu ziren.

Topaketari amaiera emateko, kontzertua izan zen Monterronen eguerdiko 13:30etan. Talde bakoitzak bi pieza eskaini zituen: Aritzetak, Imanol Urzelaireren zuzendaritzapean, "Maite" eta

"Gaur akelarre Gorbeian" kantatu zituen; amaieran, lau abesbatzak batera, 140 bat lagun guztira, "Maitia nun zira", "Himno final" eta "Agur jaunak" kantatu zituzten, Goikobaluko Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean. Ondorengo herri bazkarian 150 lagun bildu ziren San Frantzisko Xabier Ikastolako jantokian.

Aritzeta abesbatza 36 lagunek osatzen dute gaur egun, zuzendaria Imanol Urzelai da eta presidentea, berriz, Joxe Arrieta, taldeko beteroenetakoa. Ekainaren 18an, Santa Marina egunean, Xaramela (Baiona), Etxarri Arantz, Alaitz (Araba) eta Andra Mari (Gernika) abesbatzekin batera kontzertua emango du Udal Pilotalekuan. Bergarako Orkestra Sinfonikoak ere parte hartuko du jaialdian eta guztiak batera "El principe Igor" Errusieraz eskainiko dute; guztira 280 bat lagun izango dira taula gainean. B



Aritzetakoak, baserritar jantzita Arrasateko udaletxe aurrean domekan.

salduenak / otsaila

LIBURUAK

Euskaraz

1. ZOZOAK BELEARI
Andoni Egaña-Jon Sarasua. Alberdania.
2. TELEFONO KAIOLATUA
Harkaitz Cano. Alberdania.
3. FRAIXKO ETA GALTZAGORRIAK
Juan Martin Elexpuru. Txalaparta.
4. EUSKARA BATUAREN AJEAK
Ibon Sarasola. Alberdania.
5. HITZEN ONDOEZA
Joseba Sarrionaindia. Txalaparta.

Erdaraz

1. BEATRIZ Y LOS CUERPOS CELESTES
Lucia Etxebarria. Destino.
2. LAS CENIZAS DE ANGELA
Frank McCourt. Maeva.
3. EL ALBERGUE DE LAS MUJERES TRISTES
Marcela Serrano. Alfaguara.
4. DONDE EL CORAZON TE LLEVE
Susana Tamaro. Planeta.
5. TESTIGO EN LA SOMBRA
Mary Higgins Clark. Plaza & Janes.

Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. TITANIC
James Horner-en Soinu Banda.
2. LET'S TALK ABOUT LOVE
Celine Dion.
3. THE BEST
Eternal.
4. BADA HIRI GORRI BAT
Lorelei.
5. LEFT OF THE MIDDLE
Natalie Imbruglia.
6. AQUARIUM
Aqua.
7. AGUR JAUNAK
Su Ta Gar.

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

Deco-Textil
ZANGITU

Etxerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
76 08 69

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 76 18 49



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Hazkuntzak. 2. Lurrina. Euskal sindikatua. 3. Finkatu. Aluminioa. 4. Euskal atzikia. Itsas arraina. Bokala. 5. Bokala. Gipuzkoako herria. Iparretarrak. 6. Gizaki, hitz elkarketan. Arabako herri. 7. Garoa. Bostheun. Diosala hitza. 8. Kanada-ko ekialdeko irla. Zezen zikiratu. 9, VI. hil. Gipuzkoako ibaia. 10. Interjekzioa. Aurkituak.


Goitik behera

1. Kale egitea. 2. Europaren ekialdean. Zabaldu. 3. Gipuzkoan, zen. Mihisea. 4. Katilu txiki. Naizen honek. 5. Guztiz nekatu. Hareazko meta. 6. Izadia. Lehenengoa. Uranioa. 7. Kontsonantea. Behi-zaina. Osmioa. 8. Bokal errepikatua. Argona. Izkribu mota. 9. Edo. Imajina. 10. Iparraldean, berritsuak.


Soluzioa

9. Ala. India. 10. Kalkararik. 7. D. Unai. Os. 8. Ee. A. Agiri. 5. Unatu. Duna. 6. Natura. A. U. 3. Zan. Izara. 4. Kikara. Nik. 1. Hursegitea. 2. Asia. Ireki. Goitik behera 10. Aiti Kausiak. 9. Ekain. Ora. 7. Ira. D. Agur. 8. Ternua. Idi. 5. E. Irura. Ik. 6. Giza. Ailara. 3. Tinkatu. Ai. 4. Sa. Atuna. A. 1. Hazkuntzak. 2. Usaina. ELA. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



Goiko irudietan San Pedro elizaren osteko zeharbidea ikus daiteke. Badakizu zein den bere izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigararak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Azpeitxi** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Irati Alberdientzat** izan da: Zubi-Berri jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Iratiri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Elkoro Berrutia (Elkoarte) baserria**. Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-A**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13
Tf. 76 55 00.

LH elektriko ikasketak egin zituen eta 1986tik Zubillagako Suhiltzaile Parkean ari da lanean, bertako arduraduna delarik. Diputazioko lehen parkea izan zen Zubillagakoa eta Hipolito lehendabiziko promoziokoa da.

Zelan sartu zinen suhiltzaile?

Lana izateko.

Beharrezkoa den kualitatea?

Ofizio bat (mekaniko, elektrizista...) izatea nahitaezkoa da.

Prestaketa fisikoak zenbateko garrantzia dauka?

Otik 10era 8.

Zer egiten duzu sasoiaren egoteko?

Egunero ordubete gimnasia.

Dietarik egiten duzu?

Ez.

Arrisku-kirolak atsegin?

Bai, baina ez ditut praktikatzen.

Kirol bat?

Karatea eta atletismoa.

Karatearekin jarraitzen duzu?

Ez, orain ez daukat denborarik.

Zein koloreko zinturoia daukazu?

Beltza.

Urtean suhiltzaileek zenbat interbentzio egiten duzue?

300 bat, gero eta gehiago.

Zelako kasuak izaten dira?

Suteak, etxeetan eta kontenedoreetan.

Zuk zeuk zer botako zenuke sutara?

Intentzio txarrak.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Gezurak.

Erretzailea zara?

Ez.

Su artifizialak atsegin?

Bai.

Hipolito Poza

Izan duzun azken bonbero ideia?

Ez zait espresio hori gustatzen.

Zergatik emango zenuke bizitza?

Beste norbaitena salbatzeagatik.

Zure bertute bat?

Tolerantzia.

Defektu bat?

Urduritasuna.

Mania bat?

Dena ondo egin behar izatea.

Zenbat ordu egiten duzu lo?

Zortzi.

Zer da besteengan gehien

apreziatzen duzuna?

Zintzotasuna, egiazaletasuna,

Ikusitako azken filmea?

"Mejor... imposible".

Gomendagarria?

Bai.

Liburu on bat?

"El tercer gemelo", Ken Follet-ena.

Animalia bat?

Arranoa.

Kolore bat?


Urdina.

Loterian jokatzen duzu?

Normalean ez.

200 milioi edukita, zer egingo zenuke?

Munduan zehar bidaia. B



ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

LOS CAZADORES
TABERNA

Zubieta 26
☎ 76 48 08

Goizeko 7etatik zabalik

gosariak plater konbinatuak pintxoak pizzak

MUJIKA FERRETERIA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE


BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78





Herriko eskoletan, 1892

Oso antzinako erretratu erakusten dizuegu aste honetan. Epaitegian zeuden herriko eskoletan ateratakoa da orain dela 100 urte baino gehiago, 1892an hain zuzen ere.

Bertan agertzen direnen izenak ez dakizkigu, batena izan ezik: behetik eta ezkerretik hasita, lehenengo lerroan bosgarrena agertzen dena Joaquin Urreiztieta da. Argazkia bere arbaso-

etako batek eraman du Udal Artxibora eta Berrigararen argitaratzeko eskatu digute.

Norbaitek bertan agertzen den batenbaten izena badaki, edota norbait ezagun egiten bazaio, jo dezala Udal Artxibora eta eman dezala horren berri.

Argazkia: Udal Artxiboa

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

 **DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37



zumelaga

JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria  Industriaren
hornikuntzak **UNIFE** alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08



MIGUEL ALTUNA ETA IPINTZA INSTITUTUAK BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

1998-99 ikasturtea
DBHrako (12-16 urte)
AURREMATRIKULAZIOA

Zatozte gure ikastetxea barrutik
ezagutzera, martxoaren 7an, zapatua,

ATEAK ZABALIK

11:00etatik-13:00etara eta
17:00etatik-19:00etara.

Aurrematrikula epea
Otsailaren 26tik martxoaren 11ra


Lekua eta ordutegia
Miguel Altuna Berria, Boni Laskurain 17.
Tf. 76 07 08 / 76 20 82.
9:00-13:00 eta 15:00-17:00.

Oharra
Aurrematrikulatzea derrigorrezkoa da
datorren ikasturtea bertan egin ahal
izateko.

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 76 72 21



IREKI BERRIA!


Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

muebles

ARKAUZ

GRUPO

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA
APAINKETA**

**ZAPATU
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**



Grupo Arkauzen denak dira abantailak.
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster etxera eraman nahi izango duzu.
Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak

ARETXABALETA

Araba Etorbidea 20 • Tf. eta Faxa: 79 23 51